GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN MAPA 2018-2021

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2018ko abenduaren 11n onartua

AURKIBIDEA

1. SARRERA: GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN HELBURUAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1 Helburuak eta oinarrizko printzipioak
1.2 Egitura eta metodologia
1.3 Proposamen nagusien laburpena

2. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA 2015-2017 MAPA AMAITZEAN

2.1 2015-2017 Maparen aurreikuspenak
2.2 2015-2017 Maparen emaitzak
2.3 Egoeraren diagnosia

3. GIZARTE ALORREKO PREMIAK: BILAKAERA AURREIKUSPENAK

3.1 Egungo populazioa
3.2 2018-2021 eperako populazio aurreikuspena
3.3 Mendekotasun egoerak
3.4 Babesgabetasun egoerak
3.5 Pobrezia, gizarte desberdintasun eta gizarte bazterkeria egoerak

4. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ERABILITAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

4.1 4.1 Lurralde antolamendua zehazteko erabilitako irizpideak
4.2 Lurralde egituraketa proposamena

5. BETE BEHARREKO DEFIZITEN KALKULUA ETA ZENTROETAKO PLAZEN PROPOSAMENA

5.1 Bigarren mailako sarearen plangintza eta antolakuntza. Metodologia.
5.2 Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak
5.3 Esparru soziosanitarioa
5.4 Desgaitasuna duten pertsonak
5.5 Buruko gaixotasuna duten pertsonak
5.6 Zentro okupazionalak
5.7 Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak
5.8 Indarkeria matxistaren emakume biktimak
5.9 Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoak
5.10 Ondorioak
5.11 Beste zerbitzuetako estaldura helburuak

I. ERANSKINA. MEMORIA EKONOMIKOA
II. ERANSKINA. MAPAREN BETETZE MAILAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

1 SARRERA: GIZARTE ZERBITZUEN MAPAREN HELBURUAK, OINARRIZKO PRINTZIPIOAK, EGITURA ETA METODOLOGIA

1.1 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen helburuak eta oinarrizko printzipioak

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, xedatzen du hurbiltasuna, oreka eta lurralde mailako homogeneotasuna direla Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemako printzipio nagusiak, hain zuzen ere zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko orduan berdintasuna bermatzeko.

Printzipio horietako ba
ten arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistema behar bezala garatzen dela bermatzeko, Legeak xedatutako tresna nagusietako bat da **Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa**, eta Plan horren barne txertatuta, **Gizarte Zerbitzuen Mapa**, oinarrizko elementu hauen inguruan egituratuta:

- **Lurralde antolakuntza edo egitura.** Barruti geografiko homogeneo eta egokietan bereizi edo banatzea udalerriak, eskualdeak eta lurraldeak, hurbiltasunaren ikuspegia oinarritzat hartuta, hain zuzen ere populazio irizpide egokienen arabera, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztutako zerbitzuak jasotzeko.
- **Barruti edo banaketa geografikoak;** hau da, EAEko Gizarte Zerbitzuen Sistema osatzen duten lurralde barrutiak edo barruti geografikoak (oinarrizko barrutia, eremua, eskualdea, sektorea…). Barruti edo banaketa bakoitzean zehazten dira zerbitzu edo prestazio bakoitzerako xedatutako estaldura helburuak, baliabideak modu homogeneoan banatzen direla eta zerbitzu zein prestazio horiek jasotzeko berdintasuna dagoela bermatzeko.
- **Zerbitzu eta prestazio bakoitzaren arreta estaldurak,** eremu bakoitzean asebete beharreko premia posible gisa ulertuta alegia, Legeak xedatutako zerbitzu zein prestazioen unibertsaltasuna eta horien jasotzeko hurbiltasuna, berdintasuna eta ekitatea bermatzeko.

EAEn indarrean dagoen Plan Estrategikoa 2015-2018 epekoa da, eta bertan txertatutako Mapak 2017ko abendura arte zehaztutako helburu kuantitatiboak ditu. Gipuzkoan, **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Mapak** garatu zituen helburu kuantitatibo horiek. Dagoeneko iraungita dago, eta mapa horren amaierako ebaluazioak agerian utzi zuen bertako hainbat helburu ez zirela erabat asebete. Gainera, aurreikuspenen arabera, 2020ra arte EAE mailako mapa berririk onartuko ez denez, Gipuzkoarako beharrezkoa da bitarteko esparru bat edukitzea, hain zuzen ere helburu horiek erabat betetzeko bidean aurrera egiteko eta gainera, premien bilakaera kontuan hartuz, helburu berriak ezartzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 33-3 artikuluaren barne kokatzen da plangintza tresna hori. Izan ere, artikulu horretan xedatzen da Foru Aldundiek eta toki erakundeek badutela bakoitzak bere planifikazioa egiteko aukera, baina Autonomia Erkidegorako zehazturik dagoena errespetatuz betiere. Ikuspegi hori oinarritzat hartuta, Mapa honen asmoa bikoitza da: alde batetik, EAE mailan zehaztutako plangintza Gipuzkoan garatzen jarraitzea; eta bestetik, aurreko Maparen indarraldia amaitu ondoren, epe ertaineko antolakuntza tresna bat edukitzea.

Logikoki, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak xedatutako printzipio gidariak eta arreta eredua hartzen dira kontuan mapa hau osatzeko orduan. Beraz, printzipio horiek oinarritzat hartuta, 2018-2021 eperako baliabide sarearen lurralde mailako garapena zehazten du **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa** honek:

1. 2021. urterako arretaren unibertsalizaziorantz aurrera egitea. Euskal administrazio publikook oso kontuan eduki behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea bermatu behar dela eskubide subjektibo gisa, sistema hori arautuz, antolatuz eta zabalduz.
2. Gipuzkoako gizarte baliabideen sare publikoko eskaintza egokitzea gizarte premien bilakaerara, eta gizarte baliabideen lurralde oreka lortzea.
3. Zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, pertsonen premien araberako arreta egokia zein ahalik eta hurbilekoena bermatzeko.
4. Proposatutako helburuen eta neurrien jarraipen, ebaluazio eta kontrol publikoa ahalbidetzea.

Lau helburu estrategiko horiek 22 helburu operatibotan zehazten dira, mapa honetako II. Eranskineko jarraipen planean zehaztuta ageri direnak.

Lehen zein bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuei egiten diete erreferentzia Euskal Autonomia Erkidegoko Mapan proposatutako estaldura helburuek. Aipatutako Erkidegoko Mapan zehazten den moduan, Gipuzkoako Foru Aldundi honek eta Gipuzkoako udalek, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian akordio bat hartu dute; batetik, muga geografikoak zehazteko eta bestetik, GLHko Gizarte zerbitzuen behar egoeren inguruan aurretiazko diagnostikoa onartzeko.

Irizpide hauek jarraituz, Gipuzkoako Mapa honek bigarren mailako zerbitzuetarako soilik zehazten ditu estaldura helburuak. Lehen mailako arretako gizarte zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako mapa honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoa banatzeko erabili diren lurralde barruti ezberdinen diagnosi bat egiten da soilik. Lurralde Historikoko toki entitateek ildo horretan hartutako erabakien bidez zehaztuko dira lehen mailako arreta zerbitzuen estaldura helburuak eta horien lurralde egituraketa.

Horren inguruan, maparen irismenari dagokienez, batez ere kokapen fisiko jakin bati lotutako hurbiltasun maila zehatz bat eskatzen duten zerbitzuen plangintza egiteko tresna bat izan arren, kontuan hartu behar da, plaza zuzkidura jakin bat eskatzen duten zerbitzuetarako helburuak zehazteaz gain, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak Gizarte Zerbitzuen Katalogoko bigarren mailako arreta zerbitzu eta prestazioetarako helburuak ere zehazten dituela mapa honek.

Azkenik, eta Erkidegoko Mapan jasotzen den bezala, Mapa hau EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren eranskin gisa txertatuko da.

1.2 Maparen egitura eta metodologia

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2018-2021 Maparen helburuak eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian 2017ko azaroaren 22ko saioan adostutako akordioaren ondoren, mapa hori osatzeko jarraitutako bost faseak aipatu behar ditugu.

1. **FASEA.** Gizarte zerbitzuen egoera 2015-2017 mapa amaitzean.

2. **FASEA.** Lurralde antolakuntzarako erabilitako ezaugarri orokorrak eta oinarrizko irizpideak definitu.

3. **FASEA.** Egungo eskaria aztertu, baita gizarte zerbitzuen esparruko lehentasunaren oinarrizko datuak, bilakaera eta etorkizuneko aurreikuspena ere.

4. **FASEA.** Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sare publikoaren estaldura helburuak eta gabeziak zehaztu eta proposatutako esku hartzeak hautatu.

5. **FASEA.** Gipuzkoako hobekuntza helburuak hautatu.

Azken emaitza gisa, bigarren mailako arretarako sare publikoak dituen defizitak, proposatutako esku hartzeak eta 2021. urterako zerbitzu bakoitzean eta lurralde maila bakoitzean lortu beharreko hobekuntza helburuak zehazten ditu mapa honek.
Helburu horiek oinarritzat hartuta, horiek betetzeko beharrezkoa den gastu publiko arrunta zenbatesten du **MEMORIA EKONOMIKOAK** (I. Eranskina), baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan aurreikusitako gastuaren inpaktu ekonomikoa ere.

Maparen II. Eranskinean **EBALUAZIO PLAN** bat ageri da. Horren bidez, proposatutako helburuen eta neurrien jarraipen, ebaluazio eta kontrol publikoa egin daiteke. Horretarako, hasiera-hasieratik adierazle eta mugarri batzuk zehaztuko dira, horien bidez behar bezala eta modu objektiboan zenbatetsi ahal izateko ea zehaztutako helburuak lortzen ari diren, eta ea hobekuntzarik edo aldaketarik ezarri behar den, hori guztia maparen *feedback* prozesu etengabe gisa ulertuta.

Azkenik, Lehen arretako Gizarte zerbitzuen plangintzak eranskin gisa txertatu ahal izango dira Mapan. Edonola ere, gerta daitekeenez planifikazio-erritmoak berdinak ez izatea,txertaketa hau, Plangintza horiek burutzen doazen neurrian gauzatu ahal izango da. 2018-2021 Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa egintzat hartzeko ez da beharrezkoa izango horiek atxikita egotea.

1.3 Proposamen nagusien laburpena

1.3.1 Lehentasunak, esparruka banatuta

- **Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen esparruan,** bereziki garrantzitsuak dira Irungo eta Pasaiako egoitza berriak sortzeko proiektuak, baita Lasarte-Oriako egoitza handitzeko proiektua ere. Defizit gehien duten eskualdeetan plazak ituntzen jarraituko da; horrez gain, Lurralde Historiko osoan, eguneko zentroetan asteburuko zerbitzua zabaltzen jarraituko da.

- **Desgaitasunaren esparruan,** estaldura zabaltzeko egungo erritmoa mantenduko da, hain zuzen ere artatu gabeko eskariari eta populazio horren zahartze sozialaren eraginari aurre egiteko. Ondorioz, plaza kopurua areagotzeaz gain, arreta integral eta jarraituagoa emango da urte osoan zehar.

- **Esparru soziosanitarioan**, Osasun Sailarekin lan egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak, egungo lurralde oreka hobetzeko egoitza unitate soziosanitario berri bat sortzea lortzeko. Horrez gain, buruko gaixotasunen esparruan, buru nahasmendu larria duten pertsonentzako egoitza unitate bat sortuko da gutxienez, eta laguntzadun lau etxebizitza ezarriko dira defizit gehien dagoen eskualdeetan. Halaber, gizarte eta hezkuntza alorreko programak ere zabalduko dira.

- **Gizarteratze esparruari dagokionez,** eguneko arreta zerbitzu bat sortuko da Bidasoa eskualdean eta izaera soziosanitarioko egoitza zerbitzu bat Donostian. Horrez gain, Elkar Ekin Programaren esparruan, enplegagarritasuna hobetzeko zerbitzu guztiak indartuko dira, eta Zerbitzuen Zorroaren Dekretura egokituko da arreta sarea.

- **Haurrak eta nerabeak babesteko esparruan,** egoitza harrera ez den bestelako aukerak sustatuko dira, besteak beste, familia harreraren, harrera espezializatuaren eta laguntzadun programen bidez. Horrez gain, eguneko arretarako zerbitzu esperimental bat sortuko da, eta emantzipazio programa sendotuko da. Esku hartzeko programei dagokienez, diagnostikoaren eta tratamendu psikoterapeutikoaren egungo baliabidea berrantolatuko da.

- **Indarkeria matxistaren biktimen babeserako esparruan,** harrera zentro berri bat sortuko da, eta egungo arreta ibilbidea berrantolatuko da.

- **Azkenik, prestazio ekonomikoen esparruan,** araudi berri bat aplikatuko da. Bertan, zerbitzu formalen aldeko apustua egiten da, senide zaintzaileei prestakuntza eta laguntza ematen zaie, kontratatutako profesionalentzako kualifikazio baldintzak zehazten dira eta lotutako prestazioa errazago lortzea sustatzen du.

1.3.2 Alderdi kuantitatiboak

2018-2021 maparen arabera, bere indarraldian zehar, 869 plaza berri sortuko dira zentroetan. Kopuru hori honela xehatu daiteke, artatu beharreko gorabeheraren eta zerbitzu motaren arabera:

	EGOITZA	EGUNEKO ARRETA	GUZTIRA
Mendekotasuna adinekoak	395	51	446
Desgaitasuna	177	96	273
Gizarteratzea	66	34	100
Adingabekoen babesgabetasuna	32	18	50
GUZTIRA	**670**	**199**	**869**

2. GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA 2015-2017 MAPA AMAITZEAN

2.1. 2015-2017 maparen aurreikuspenak

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 eperako maparen arabera, bigarren mailako arretako foru plazen defizita 634 plazakoa zen. Horietatik 417 lehentasunezko plazak ziren, azpiko taulan ageri den moduan. Taula horretan xedatzen dira lehentasunezko plazak, jarduera esparruaren arabera bereizita. Defizitaren zifrak, berriz, Gipuzkoa osoari buruzkoak dira.

1. taula. Plazen defizita eta lehentasunezko plazak 2015-2017 mapan

		2.2. Eguneko zentroak				2.3. GHZ		2.4. Egoitza zentroak										Guztira
		2.2.1. Mendekotasuneko EZ	2.2.1. Desgaitasuneko EZ	2.2.2. Lanean trebatzeko zentroa	2.2.3. Gizarteratzeko EZ	2.3.1. Mendekotasuneko GHZ	2.3.2. Gizarteratzeko GHZ	2.4.1. Adinekoentzako EZ	2.4.2. Desgaitasuneko EZ	2.4.2.a) Desgaituentzako etxebizitza	2.4.3. Buruko gaixotasuneko EZ	2.4.3.a) Buruko gaixotasuneko etxebizitza	2.4.4. Babesgabetasuneko adingabekoen EZ	2.4.5. (1) Bazterketako EZ: kronifikatua	2.4.5. (2) Gizarteratzeko EZ	2.4.6. (1) BHZ. indarkeria matxistaren emakume bikt.	2.4.6. (2) Indarkeriaren emakume biktimentzako egoaldi EJ/ 7	**GUZTIRA**
L.H	Territorio Histórico						8							10				**18**
Sektore	Ekialdea		19		12				16		14				16			**77**
	Mendebaldea		16		8				12		12				6			**54**
Eskualdea	Bidasoa									6		6						**12**
	Donostialdea											6						**6**
	Urola kosta									6		6						**12**
	Debabarrena																	**0**
	Debagoiena									6		6						**12**
	Goierri									6		6						**12**
	Tolosaldea											6						**6**
Eremua	Bidasoa	6		5				0										**11**
	Oarsoaldea	10						20										**30**
	Donostia	20		8				10										**38**
	Buruntzaldea	10						6										**16**
	Urola kostaldea							6										**6**
	Iraurgi							6										**6**
	Deba kosta	12																**12**
	Deba erdia	12		4														**16**
	Debagoiena	10		5				30										**45**
	Urola garaia			4				10										**14**
	Oria garaia			4				10										**14**
	Tolosaldea																	**0**
1. Lehentasunezko plazak g		**80**	**35**	**30**	**20**	**0**	**8**	**98**	**28**	**24**	**26**	**36**	**0**	**10**	**22**	**0**	**0**	**417**
2. Plazen defizita		**96**	**42**	**50**	**30**	**14**	**14**	**157**	**35**	**56**	**29**	**48**	**0**	**17**	**37**	**9**	**0**	**634**
3. Asetzeke dagoen defizita		**16**	**7**	**20**	**10**	**14**	**6**	**59**	**7**	**32**	**3**	**12**	**0**	**7**	**15**	**9**	**0**	**217**

2.2 2015-217 maparen emaitzak

2014ko abenduaren 31n, Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte zerbitzuek 9.641 foru plaza zituzten bigarren mailako arreta zerbitzuetan, bai propioak bai itunduak kontuan hartuta. Bestalde, 2017ko abenduaren 31n, foru plaza kopurua 10.093 zen guztira. Beraz, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen 2015-2017 bitarteko indarraldian, hau da, hiru urtetan, 452 plazako gehikuntza garbia egon zen.

2. taula. Plaza kopuruaren bilakaera eta alderaketa 2015-2017 mapako helburuekin

	2014 1	2017 2	Aldearencia 3=2-1	Lehentasunezkoak tarias 4	Defizita 5	%Aldea./Lehent. 6=3/4, %-tan	%Aldea./Defizita 6=3/4, %-tan
Mendekotasuna-Adinekoak							
Egoitza zentroak	4.362	4.496	134	98	157	137%	85%
Gaueko harrera zentroak			0	0	14		0%
Eguneko zentroak	1.462	1.540	78	80	96	98%	81%
Desgaitasuna							
Egoitza zentroak	400	419	19	28	35	68%	54%
Laguntzadun etxebizitzak	365	415	50	24	56	208%	89%
Eguneko zentroak	626	680	54				
Buruko gaixotasunak							
Egoitza zentroak	93	124	31	26	29	119%	107%
Laguntzadun etxebizitzak	99	105	6	36	48	17%	13%
Eguneko zentroak	228	234	6				
Eguneko zentroak (Desg. + Buruko g	854	914	60	35	42	171%	143%
Gizarteratzea							
Egoitza zentroak. Kronifikatua	39	44	5	10	17	50%	29%
Egoitza zentroak	391	405	14	22	37	64%	38%
Gaueko harrera zentroak		8	8	8	14	100%	57%
Eguneko zentroak	154	168	14	20	30	70%	47%
Lanean trebatzeko zentroak	1.079	1.106	27	30	50	90%	54%
Adingabekoak							
Egoitza zentroak	323	329	6	0			
Indarkeria matxistaren emakume biktimak (IMEB)							
Egonaldi ertaineko zentroak	8	8	0				
Larrialdiko zentroak	12	12	0				
IMEB zentroak guztira	20	20	0	0	9		0%
Guztira	**9.641**	**10.093**	**452**	**417**	**634**	**108%**	**71%**

Sortutako 452 plaza garbik esan nahi du mapan lehentasunezko plaza gisa zehaztutako 417 plaza baino % 10 gehiago sortu zirela. Beste alde batetik, mapan zehaztutako plaza gabeziaren zenbatespenaren % 71 da hazkunde hori.

Aurreko taulan zehaztu den moduan, aurreikuspenak kontuan hartuz, arreta esparru guztietan nahiko modu homogeneoan banatu da hazkunde hori: mendekotasun esparruan, desgaitasunaren esparruan, buruko gaixotasunen esparruan eta gizarteratze esparruan. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako arretaren esparruan ez da plaza berririk sortzeko premiarik antzeman 2015-2017 epean.

Arestian aipatutako plazez gain, bigarren mailako sareko zentro soziosanitarioei ere eman zaie arreta 2015-2017 epean. 2015 hasieran 95 plaza zeuden, eta 2017an, berriz, 100. Azkenik, azpimarratzekoa da pertsona desgaituentzako etxebizitzetan eta eguneko zentroetan, plaza kopurua areagotzeaz gain, urteko zerbitzu egunen kopurua ere areagotu dela, arreta jarraituagoa emateko.

Maparen exekuzio maila globalaz gain, ondorio hauek ere aipagarriak dira:

a) **Lurralde desoreka.** Zerbitzu batzuetan, lurralde desorekaren murrizteko aurrerapen batzuk egin diren arren (adineko pertsonentzako eguneko zentroetan, pertsona desgaituentzako eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitzetan, gizarteratzeko eguneko zentroetan), beste esparru batzuetan ez da gauza bera gertatu. Desoreka horren bilakaera bi adierazle konbinatuz aztertzen badugu (estaldura desberdintasunaren indizea, esparruka eta beren egoitza barrutian kokatutako plaza bat betetzen duten erabiltzaileen proportzioa) hiru zerbitzu multzo sortzen dira gai horren inguruan.

3. Taula. Lurralde desorekaren adierazleak, zerbitzuka

	Estaldura desoreka tasa		Bere eremuko egoiliar %		
Zerbitzu motak	2014	2017	2014	2017	
Adinekoentzako egoitza zentroak	7,280	7,284	85,1%	83,3%	
Adinekoentzako eguneko zentroak	3,32	2,89	95,5%	95,5%	
Egoitza zentroak. Desgaitasuna	6,312	6,310	73,5%	74,7%	
Etxebizitzak. Desgaitasuna	33,80	34,90	79,3%	77,9%	
Eguneko zentroak. Desgaitasuna	6,34	6,94	88,9%	89,3%	
Lanean trebatzeko zentroak	118,13	124,35	75,2%	72,3%	
Egoitza zentroak. Buruko gaixot.	8,31	3,89	64,5%	67,7%	
Etxebizitzak. Buruko gaixotasunak	85,51	95,00	63,5%	56,9%	
Eguneko zentroak. Buruko gaixotasunak	3,71	1,53	89,7%	88,7%	
Gizarteratzeko egoitza zentroak	119,42	121,57	66,8%	74,1%	
Gizarteratzeko eguneko zentroak	42,41	38,18	80,0%	82,8%	
Adingabekoentzako egoitza zentroak	49,14	47,68	42,7%	40,7%	

b) **Asebete gabeko eskaria.** Bi zerbitzutan, programatutako maila baino gehiago areagotu da itxarote zerrenda: adinekoentzako egoitza zetroetan eta desgaituentzako egoitza zentroetan. Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zentroetako itxarote zerrenda, oraindik ere luzea izan arren, programatutako mugen barne mantendu da. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetan eta gizarteratze zentroetan, itxarote zerrenda teknikoaren azpitik dago benetako itxarote zerrenda. Aldi berean, batez besteko itxarote denbora areagotu egin da.

c) Zerbitzuen barne, erabiltzailearen **autonomia handiagoa** sustatzen duten arreta modalitateak indartu dira, eta beraz, zerbitzuaren kalitate handiagoaren adierazleak dira.

- Mendekotasunaren esparruan eta desgaitasunaren esparruan, programatutako epeaz gaindi areagotu da etxean geratzeko tasa.
- Desgaituentzako etxebizitzetako gutxieneko zerbitzua areagotu da, eta beraz, modalitate horretako etxebizitzen kopurua % 40tik gorakoa da.
- Mendekotasuneko prestazio ekonomikoen artean, prestazio guztien % 33 osatzen dute laguntza pertsonaleko prestazioek. Helburu gisa ezarritako % 22a baino ehuneko askoz ere altuagoa da.
- Familia harreran dauden bertako adingabeen portzentajeak, egoitzetan dauden bertako adingabekoekin alderatuta, programatutako mailaz haraindian egin du gora: % 90 0-7 urte bitarteko adingabekoen kasuan, aurreikusitakoa baino 9 ehuneko puntu gehiago; 8-17 urte bitarteko adingabekoen kasuan, % 53 da ehunekoa, programatutakoa baino hiru puntu gehiago.

d) **Zerbitzuen eraginkortasuna.** Eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak erabili dira eskainitako zerbitzua hobetzeko. Hala, okupazio tasa areagotu egin da, 2017an % 98tik gorakoa zena. 2 eta 3. mailako mendekotasun mailako pertsonentzako arreta kontzentratu da, % 90eko maila lortuz.

2.3 Egoeraren diagnostikoa

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen erakunde arteko mahaiak 2017ko azaroaren 22ko saioan eskatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzueta sarearen egoeraren diagnosia lideratzeko. SIIS-Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari egindako lankidetzaren hitzarmena kontutan izanik eskaera helarazten zaie. SIIS- Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak 2017 amaieran, Gipuzkoako gizarte zerbitzuan sarearen egoeraren azterketa bat egin du. Azterketaren dokumentoa aipatutako Mahaian onartu zen, 2018ko azaroaren 21ean egindako saioan. Jarraian ageri dira zehaztuta ikerketa horretatik atera beharreko ondorio nagusiak, hain zuzen ere mapa berri hau egiteko kontuan hartu beharrekoak.

Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonentzako zentroei eta zerbitzuei dagokienez:

- 2015. urtean, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako sareak, adineko pertsonen populazioaren % 7,5i ematen zion arreta mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako zuzeneko arreta zerbitzuen bidez. Araban % 9,50 zen ehuneko hori, eta Bizkaian, % 6,10. Datu horiez gain, mendekotasuneko prestazio ekonomikoen (65 urtetik beherakoak barne) onuradunak ere kontuan hartzen badira, adineko pertsonen % 16,6 zen erabiltzaile kopuru osoa Gipuzkoan; % 16,9 Araban eta % 11,5 Bizkaian.

- Adinekoentzako edo mendekotasun egoera dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan xedatutako kudeaketa helburuak ongi bete dira proposatutako adierazle gehienetan.

    1. Bilakaera positiboa izan duten adierazleen artean, aipagarriak dira hauek: eguneko zentroetan sartzeko itxarote zerrenden eta batez besteko itxarote denboraren murrizketa; mendekotasun egoeran dagoen populazioaren estaldura areagotzea; ingurunean zaintzeko prestazioa areagotzea mendekotasuneko prestazio ekonomiko guztiak kontuan hartuta; okupazio tasen hobekuntza, eta adineko pertsonak etxean geratzeko tasa areagotzea.

    2. Aitzitik, egoitzen kasuan, ez da itxarote zerrendak murrizteko helburua bete. Izan ere, benetako itxarote zerrendaren eta itxarote zerrenda teknikoaren arteko aldea 98 pertsonakoa zen 2013. urtean, eta 377 pertsonakoa 2016.

urtean. Beraz, hasiera batean zehaztutako 74 pertsonako helmugatik urrun geratu da kopuru hori.

- Lehen mailako arreta zerbitzuen lurralde banaketari dagokionez, elementu hauek dira aipagarriak:

3. Etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokionez, 65 urteko eta hortik gorako 100 pertsona bakoitzeko baimendutako ordu kopurua 734,8 da, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztutako erreferentzia adierazlearen (910,3) azpitik. 13 eremuetatik hiruk bakarrik betetzen dute adierazle hori, edo hori betetzetik oso gertu daude (Urola Garaia, Donostia eta Tolosaldea).

4. Bigarren, eguneko arreta zerbitzuen ezarpena, murritza izan arren, etengabea izan da. 2018. urtean, Gizarte Zerbitzuetako 13 eremuetatik bostek bakarrik dituzte baliabide horiek eta betetzen dute proposatutako estaldura. Gainerako zortzi eremuek ez dute horrelako baliabiderik.

5. Adinekoentzako ostatu zerbitzuek erabateko estaldura erregistratu dute, hau da, 0,407 plaza 65 urteko eta hortik gorako 100 pertsona bakoitzeko. EAEko mapan zehaztutako erreferentzia adierazlea (0,538) baino apalagoa da zifra hori. Hiru eremuk —Urola Kostaldeak, Tolosaldeak eta Donostiak— erreferentzia hori betetzen dute edo betetzetik gertu daude.

- Azkenik, adinekoentzako bigarren mailako arreta zentroei dagokienez:

6. Bigarren mailako arretarako egoitzetan sartzeko itxarote zerrenda % 23 areagotu da 2013az geroztik eta gaur egun, eskuragarri dauden plazen % 18,7 osatzen du.

7. Gipuzkoa osoan, 2017. urtean, egoitzetako plazen estaldura (2,967) erreferentzia gisa (3,006) zehaztutakoa zen ia-ia. Sei eremuk maila hori dute edo maila hori gainditzen dute, eta Buruntzaldean, Deba Kostan eta Oarsoaldean daude defizit gehien.

8. Eguneko zentroetan antzekoa da egoera: izan ere, Gipuzkoa osorako zehaztutako erreferentzia adierazlea ia-ia betetzen da egungo plaza zuzkidurarekin (0,991). Erreferentzia gisa (1,006) zehaztutako estaldura gainditzen da eremu gehienetan.

Desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez:

- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen sareak zuzeneko 3.000 arreta plaza inguru eskaintzen ditu pertsona desgaituentzat, bai egoitzetan, zentro okupazionaletan eta eguneko arreta zentroetan, bai etxez etxeko arreta zerbitzuen bidez. Gipuzkoako helduen populazioaren % 0,66 osatzen dute plaza eta zerbitzu horiek: portzentaje hori Bizkaiko estalduraren antzekoa da (% 0,61) baina Arabakoa (% 0,78) baino apalagoa, Gipuzkoako egoitza estaldura apalagoa baita. Horrez gain, kontuan hartu behar da, mendekotasunaren arretarako prestazio ekonomikoetan, 65 urtetik beherako 3.700 pertsonek jasotzen dituztela laguntza horiek.

- Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztutako helburuak betetzeari dagokionez, ez dira itxarote zerrenden inguruko helburuak bete (buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza baliabideetan izan ezik). Hala ere, asebete gabeko eskaria ez da gehiegi areagotu. Aitzitik, egoitza baliabideetako arreta urteko 365 egunetara zabaltzeko helburua bete da.

- Zentroen estaldurari eta lurralde banaketari dagokionez, hau da aipagarria:

9. Ezin dugu esan bi kolektibo horiei zuzendutako zentroetan itxarote zerrendak nabarmen areagotu direnik. Egia esan, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzen kasuan, 2013 eta 2017 bitarte itxarote zerrenda murriztu egin da, eta eskuragarri dauden plazen % 12ren araberakoa da. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako egoitza zentroen kasuan ere itxarote zerrendak murriztu dira. Hala ere, kasu honetan, eskuragarri dauden plazen ehuneko pixka bat handiagoa da itxarote zerrenda (% 25).

10. Zentro ezberdinetako populazio estaldurarekin zerikusia duten adierazleak betetzeari dagokionez, aipagarria da Gipuzkoa osoan, estaldura horiek betetzen direla buruko gaixotasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetan. Ez da gauza bera gertatzen desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroen kasuan, ezta egoitzen kasuan ere —bai desgaitasuna duten pertsonentzat bai buruko gaixotasuna duten pertsonentzat—; hala ere, gaur egun, helburu gisa ezarritako estaldura mailetatik oso gertu daude. Halaber, egoitzen esparruan, Gizarte Zerbitzuen Mapak laguntzadun etxebizitza modalitateetan zehaztutako estaldurak gainditzen dira gaur egun.

11. Zentro horien lurralde banaketaren ikuspegitik:

    - Eguneko arreta zentroetan, erreferentziako estaldurak betetzen dira —bai desgaitasuna duten pertsonentzako bai buruko gaixotasuna duten pertsonentzako— Ekialdeko Sektorean. Mendebaldeko Sektorean, berriz, desgaitasuna duten pertsonentzako zentroetan ez dira erreferentziako estaldurak betetzen.

    - 2017. urtean, mapan aurreikusitakoa (0,285) baino apur bat apalagoa izan da zentro okupazionalen estaldura (0,262).

    - Pertsona desgaituentzako laguntzadun etxebizitzetarako erreferentzia estaldura (0,020) alde handiz bete da Gipuzkoa osoan (0,095) eta Gizarte Zerbitzuen bederatzi eskualdetatik zortzitan. Aitzitik, egoitza zentroen modalitateko estaldura (0,187) ez da lortu ez Ekialdeko Sektorean (0,120) ezta Mendebaldeko Sektorean (0,058) ere.

- Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako zentroei dagokienez, zehazki, laguntzadun etxebizitzen inguruan, estaldura gomendatua (0,014) Gipuzkoa osoan gainditzen da, zehazki Gizarte Zerbitzuen bederatzi eskualdetatik bostetan. Aitzitik, buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroen modalitaterako proposatutako estaldura (0,050) ez da betetzen Gipuzkoa osoan (0,028).

Babesgabetasun egoeran edo arriskuan dauden adingabekoentzako zentro eta zerbitzuei dagokienez:

- 2015. urtean, babesgabetasun egoeran dauden adingabekoentzako 351 egoitza plaza zeuden guztira Gipuzkoan. Horrek esan nahi du 0,282 plazako estaldura zegoela 100 adingabeko bakoitzeko, Arabako eta Bizkaiko estalduraren azpitik. Gainera, 2015eko abenduaren 31n, 277 adingabeko zeuden egoitza harreran eta 377 adingabeko familia harreran: Gipuzkoan erregistratutako familia harrera tasa beste lurraldeetakoa baino handiagoa da; eta egoitza harrera berriz, apalagoa. Ondorioz, harrera guztien ia % 58 familia harrerak dira. Araban % 40 dira familia harrerak, eta Bizkaian % 37.

- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan adingabekoen inguruan zehaztutako helburuak betetzeari dagokionez, hau da aipagarriena: okupazio tasen helburua bete eta gainditu dela (% 92ko gutxieneko maila gainditu zen 2017an); halaber, bertako 0 eta 7 urte bitarteko adingabekoen harreraren % 81 gutxienez familia harrera izan da; 7 urtetik gorako adingabekoen kasuan ere, harreren % 50 familia harrera izateko helburua bete da. Beste alde batetik, familiekin arreta psikosoziala zein gizarte eta hezkuntza alorreko arreta emateko zerbitzuak indartzeko helburua lortu da, 1.500 adingabekori arreta emateko helburua soberan bete baita. Aitzitik, familia harrera espezializatua finkatzeko helburua ez da bete.

- Lehen mailako arretaren esparruan, babesgabetasun arriskuan dauden adingabekoentzako gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze zerbitzuaren estaldurari buruzko datuak udal mailan ematen dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako berariazko inkesta batetik atera dira. Inkesta horretako datuen arabera, kontsultatutako 43 udalerrietan, 18 urtetik beherako adingabekoen % 1,3ri ematen zaie

arreta programa horien bidez. Euskal Autonomia Erkidegoko Mapan zehaztutako erreferentziako adierazlea (0,696 kasu 100 adingabeko bakoitzeko) gainditzen da beraz. Kontsultatutako 43 udalerritatik 15 udalerrik ez dute erreferentziako adierazle hori betetzen.

Gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzako zentroei eta zerbitzuei dagokienez, hauek dira datu aipagarrienak:

- Gizarte Zerbitzuen Inkestaren datuen arabera —zentro publikoak, zentro itunduak eta zentro erabat pribatuak biltzen dituena—, Gipuzkoak 1.180 ostatu plaza ditu gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat: horietatik 195 plaza gaueko harreran eta beste 223 plaza eguneko zentroetan. EAEko beste bi lurralde historikoetan baino handiagoa da egoitza estaldura. Eguneko arreta estaldura, berriz, Bizkaian eta Araban baino apalagoa da Gipuzkoan.

- Zehaztutako helburuak betetzearen inguruan, eguneko zentroen kasuan itxarote zerrendak murrizteko helburua bete da. Horrez gain, kronifikatutako egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroetako okupazio tasa areagotzea lortu da, helburu gisa zehaztutako okupazio maila (% 92) gaindituz. Aitzitik, ez da tasa hori lortu ez gizarteratzeko eguneko zentroetan ezta gizarteratzeko egoitza zentroetan ere.

- Esparru horretako lehen mailako arreta zerbitzuaren oinarrizko ezaugarriak hauek dira:

    12. Gipuzkoako Foru Aldundiak bildutako informazioaren arabera, 2018. urtean, Gipuzkoako udalerriek 167 plaza zituzten eguneko arreta zerbitzuetan. Horrek esan nahi du 0,038 dela estaldura tasa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Mapak zehaztutako helburu tasaren (0,047) azpitik dagoela. 2018. urtean, bederatzi eskualdetik hiruk bakarrik gainditzen zuten estaldura tasa hori (Bidasoak, Oarsoaldeak eta Donostiak). 2018an, gainerako eskualdeek ez dute horrelako zerbitzurik.

13. Gaueko harrera zerbitzuei dagokienez, 2018. urtean guztira 116 plaza zeuden Gipuzkoan. Horrek esan nahi du 18 urteko eta hortik gorako 100 pertsona bakoitzeko 0,020 plazako estaldura tasa dagoela. Euskal Autonomia Erkidegoko Mapak zehaztutako erreferentzia adierazlea (0,031) ez da betetzen Gipuzkoa osoan. Eskualdeka, Donostian eta Oarsoaldean bakarrik betetzen da estaldura tasa hori.

14. Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako ostatu zerbitzuen estaldura tasari dagokionez (1.9.2), eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 57 plaza daude Gipuzkoa osoan. Kasu honetan, estaldura tasa (0,013) ez da EAEko Mapak zehaztutako erreferentzia estaldurara iristen (0,020). Lurralde banaketaren ikuspegitik, Tolosaldea, Debabarrena eta Urola Kosta eskualdeetan bakarrik gainditzen da proposatutako helburua.

15. Azkenik, aipatu behar da gizarte larrialdiko harrera etxebizitzetako egungo estaldura tasa (0,063) mapak 2017rako proposatutakoa (0,046) baino handiagoa dela. Hiru azpieskualde bakarrik daude maila horren azpitik (Debagoiena, Urola garaia eta Oarsoaldea).

- Bigarren mailako arreta zerbitzuei dagokienez:

16. Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroen kasuan, eskuragarri dauden plazen % 27 zen erregistratutako itxarote zerrenda 2017 amaieran. Eguneko zentroetan, aitzitik, proportzio hori % 9,5 da.

17. Gipuzkoa osoa kontuan hartuz, 2017an eskaintzen ziren plazak kontuan hartzen baditugu, ez ziren eguneko zentroetako, gaueko harrerako edo egoitza zentroetako erreferentzia adierazleak betetzen. Hala ere, alde txikia zegoen erreferentziako tasen eta benetako estaldura tasen artean.

18. Lurraldearen ikuspegitik, eguneko arretako zerbitzuetako gabezia nagusiak Mendebaldeko Sektorean antzeman dira (0,017ko estaldura, helburu estaldura 0,044 denean). Gauza bera gertatzen da bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zerbitzuen kasuan (0,104 da tasa Mendebaldeko Sektorean, erreferentzia tasa 0,120 denean).

Azkenik**, indarkeria matxistaren emakume biktimentzako** zerbitzuei eta zentroei dagokienez:

- Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren estatistikaren arabera, 2015. urtean, guztira 41 egoitza plaza zeuden indarkeria matxistaren emakume biktimei berariazko arreta emateko. Zifra horren barne daude egoitzetako bigarren mailako arreta plazak, baita lehen mailako arretak indarkeria matxistaren emakume biktimentzat eskaintzen dituen harrera etxebizitzetako plazak ere. Alderaketa egiten badugu, datu horiek agerian uzten dute indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza plaza bidezko estaldura gutxien duen lurraldea dela Gipuzkoa.

- Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako lehen mailako arretako harrera etxebizitzei dagokienez, Gipuzkoa osorako egungo estaldura tasa (0,036) mapak proposatutako tasaren gainetik dago (0,030). Hala ere, hiru eremutan (Iraurgin, Urola Garaian eta Deba Kostan) ez dago horrelako plazarik oraindik.

- 2017an eskuragarri zeuden bigarren mailako arretako egoitza plazei dagokienez, mapak proposatutakoa (0,010) baino pixka bat apalagoa 2017ko estaldura tasa (0,009).

Azpiko taulan laburtzen da Gipuzkoako egungo egoera, Gizarte Zerbitzuen Mapak 2017rako zehaztutako estaldura mailekin alderatuta. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan Gipuzkoarako zehaztutako estaldurak egungo populazioari aplikatuz kalkulatzen da plaza kopurua.

4. taula. Gizarte Zerbitzuen Maparen banaketaren egungo egoerari buruzko laburpen taula. Gipuzkoa 2017/18

	Gizarte Zerbitzuen Mapako helburuak 2017	Egungo egoera	Saldoa[1]	Itxarote zerrendaren %, plaza kopuru osoa kontuan hartuta[2]
	Plaza kopurua estalduraren arabera	Plaza kopurua	Plaza kopurua estalduraren arabera	
MENDEKOTASUN EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN ADINEKO PERTSONAK				
1.2. Etxez etxeko laguntza zerbitzua (baimendutako orduak)	1.415.135	1.107.725	-307.410	--
1.7. Adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzuak	112	182	+70	--
1.9.3. eta 1.9.4. Ostatu zerbitzuak: adinekoak (plazak)	836	633	-203	--
2.2.1. Adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa (plazak)	1.564	1.540	-24	% 8,6
2.3.1. Autonomia mugatuari arreta emateko gaueko zentroa (plazak)	16	0	-16	--
2.4.1. Adineko pertsonentzako egoitza zentroak (plazak)	4.673	4.612	-61	% 18,7
DESGAITASUNA ETA BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK				
2.2.1. Eguneko zentro asistentziala desgaitasuna duten pertsonentzat (plazak)	745	680	-65	% 6,2
2.2.1. Eguneko zentro asistentziala buruko gaixotasuna duten pertsonentzat (plazak)	232	234	+2	% 6,8
2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala (plazak)	1.249	1.150	-99	--
2.4.2. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak (plazak)	907	834	-73	% 12,0
2.4.3. Buruko gaixotasuna dute pertsonentzako egoitza zentroak (plazak)	280	229	-51	% 24,9
2.7.4. Gizartean esku hartzeko zerbitzua Arreta Goiztiarrean (artatutako 0-6 urte bitarteko pertsonak)	815	420	-395	--
BABESGABETASUN EGOERAN EDO ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEKOAK				
1.3. Gizarte eta hezkuntza alorreko zein alor psikosozialeko esku hartze zerbitzua (artatutako adingabekoak)	875	--	+754	--
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoentzako egoitzak (plazak)	322	301	-21	--
2.7.3.1. Gizarte eta hezkuntza alorreko zein arlo psikosozialeko esku hartze zerbitzua familiekin (artatutako pertsonak)	1.543	1.790	+247	--
2.7.6.1. Adingabekoen familia harrera sustatu eta horri laguntza teknikoa emateko zerbitzua (harreran dauden adingabekoak)	439	350	-89	--
GIZARTE BAZTERKETA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK				
1.7. Bazterketa egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua: eguneko zentroak (plazak)	206	167	-39	--
1.8. Gaueko harrera zerbitzuak	184	116	-68	--
1.9.1.1. Gizarte larrialdi egoeretarako harrera etxebizitzak	202	277	+75	--
1.9.2. Bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako etxebizitza babestuak	88	51	-37	--
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	193	168	-25	% 9,5
2.3.2. Gizarteratze premiei arreta emateko gaueko harrera zentroa	18	8	-10	--
2.4.5. Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitzak	526	457	-69	% 26,5
INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUME BIKTIMAK				
1.9.1.2. Indarkeria matxistaren biktimentzako harrera etxebizitzak	65	84	19	--
2.4.6. Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitzak	22	20	-2	--
BESTELAKO ZERBITZUAK, PROGRAMAK ETA PRESTAZIO EKONOMIKOAK				
2.5. Adineko pertsonentzako atseden zerbitzuak (plazak)	31	16	-15	--
2.5. Pertsona desgaituentzako atseden zerbitzuak (plazak)	22	8	-14	--
2.6. Gizarte larrialdietako koordinazio zerbitzua (erabiltzaileak)	902	412	-490	--
3.1.1. Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (titularrak)	3.025	5.481	+2.456	--
3.2.1. Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (titularrak)	12.062	11.011	-1.051	--
3.3. Autonomia pertsonala sustatzeko laguntzak (laguntza teknikoak) (onuradunak)	1.587	2.905	+1.318	--

(1) Egungo saldoa adierazten du. Balioak positiboak badira estaldura gainditu dela esan nahi du, eta negatiboak badira, berriz, defizita dagoela.
(2) Eskuragarri dagoen plaza kopurua oinarritzat hartuta, itxarote zerrendaren pisu erlatiboaren ehunekoa adierazten du.

3. GIZARTE ALORREKO PREMIAK: BILAKAERA AURREIKUSPENAK

Jarraian aurkezten den azterketa honen helburua da Gizarte Zerbitzuek artatutako egoeraren bat eduki dezakeen Gipuzkoako populazioaren bilakaera zenbatestea 2021. urterako. 12/2008 Legearen 6. artikuluaren arabera, larrialdi egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzuteaz gain, hauek dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren funtsezko eginkizunak:

- Pertsonen autonomia sustatzea eta mendekotasun egoerek pertsonei eta familiei eragiten dizkieten beharrizanei aurrea hartu eta erantzutea.
- Babesgabetasun egoerek eragiten dituzten beharrizanei aurre hartu eta erantzutea.
- Bazterketa egoerei aurre hartu eta erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.

Beraz, aipatutako egoera bakoitzak Gipuzkoan duen egungo prebalentzia aztertuko da atal honetan. Horrez gain, hipotesi batzuk proposatuko dira gizarte zerbitzu eta prestazioen 2021. urteko eskaria zenbatesteko. Informazio hori benetako eskariaren datuekin osatu beharko da, benetako premietara egokitzen den sarea behar bezala planifikatzeko.

3.1 Egungo populazioa

Gaur egun, Biztanleen Etengabeko Erroldaren estatistikak 2017ko urtarrilaren 1ean emandako datuen arabera, Gipuzkoak 719.282 biztanle ditu, gure lurraldeak inoiz erregistratutako populazio handiena. Ikuspegi soziodemografikotik begiratuta, Gipuzkoako populazioaren joera eta ezaugarri nagusiak hauek dira:

Azken bi hamarkadetan, Gipuzkoako populazio bolumena nahiko egonkor mantendu da: 1998 eta 2017 bitarte, Gipuzkoako populazioa % 6,3 hazi da. 2013 eta 2017 bitarteko epea kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu Gipuzkoa % 0,8 hazi zela —termino absolutuetan 5.500 pertsona gehiago—. Bizkaian, adibidez, populazioa murriztu egin zen (-% 0,7) baita Estatu osoan ere (-%1,2).

1. grafikoa. Populazio egoiliarraren bilakaera eta urtetik urterako areagotzea. Gipuzkoa 1998-2017



Iturria: INE. Etengabeko Biztanle Erroldaren estatistika.

Horren guztiaren ondorioz, **eraldaketa handia** egon da populazioaren **adin egituran**, hain zuzen ere bizi itxaropenaren zein ugalkortasun joeren ondorioz, eta hein gutxiago batean, migrazio fluxuen ondorioz. Aldaketa horien guztien ondorioz, 65 urteko eta hortik gorako populazioaren pisu erlatibo zein absolutua gero eta handiagoa da, eta bereziki, 80 urteko eta hortik gorako pertsonena.

2. grafikoa. Populazio egoiliarraren banaketaren bilakaera, adin tarteen arabera. Gipuzkoa 1998-2017



Iturria: INE. Etengabeko Biztanle Erroldaren estatistika.

Hurrengo taulan ageri den moduan, 65 urteko eta hortik gorako gipuzkoar populazioa % 39,6 areagotu da azken 20 urtetan, epe berean, populazio osoa % 6,3 areagotu den bitartean. 1998 eta 2017 bitarte, 65 urteko eta hortik gorako adineko pertsonak, populazio osoaren % 16,5 izatetik % 21,6 izatera pasa dira. Zehazki, 80 urteko eta hortik gorako adin tartea, populazio osoaren % 3,7 izatetik, populazio osoaren % 7 izatera pasa da. Epe horretan, adin tarte horren bolumena ia bikoiztu egin da: 1998. urtean 25.349 pertsona ziren, eta 2017an, berriz, 50.254.

5. taula. Populazio egoiliarraren bilakaera, adin tarteen arabera. Gipuzkoa 1998-2017

	0-17 urte	18-64 urte	65 urte edo gehiago	80 urte edo gehiago	Guztira
1998	107.671	457.391	111.378	25.349	676.439
1999	108.245	455.071	113.957	25.472	677.275
2000	106.580	456.769	116.016	25.914	679.370
2001	105.331	456.177	118.561	26.941	680.069
2002	104.611	457.150	121.216	28.012	682.977
2003	104.459	457.241	122.716	29.196	684.416
2004	105.281	457.801	123.431	30.380	686.513
2005	106.090	458.661	123.957	31.809	688.708
2006	107.608	458.261	126.026	33.123	691.895
2007	109.480	458.044	127.420	34.828	694.944
2008	111.922	460.223	128.911	36.255	701.056
2009	114.366	459.721	131.611	37.907	705.698
2010	116.525	456.418	134.320	39.426	707.263
2011	118.680	453.062	137.865	41.233	709.607
2012	120.541	450.682	140.874	42.783	712.097
2013	122.288	447.658	143.872	44.572	713.818
2014	123.343	444.235	147.570	46.322	715.148
2015	124.434	441.809	150.591	47.926	716.834
2016	125.063	439.790	152.979	49.006	717.832
2017	125.653	438.176	155.453	50.254	719.282
Δ (%) 2017/1998	16,7%	-4,2%	39,6%	98,2%	6,3%

Iturria: INE. Etengabeko Biztanle Erroldaren estatistika.

Hainbat urtetan adingabekoen populazioak behera egin eta gero, 2000ko hamarkada erdialdetik aurrera adin tarte horren gorakada txiki bat antzeman da. 2005 eta 2017 bitarte, 18 urtetik beherako pertsonen kopurua % 19 areagotu zen, epe horretan, populazio osoa % 5 areagotu zen bitartean.

Halaber, **migrazio fluxuek —zehazki, atzerriko migrazioak— eragin nabaria** izan dute Gipuzkoako populazioaren bolumenean eta osaketan. Atzerrian jaiotako eta Gipuzkoan egoiliarra den populazioa nabarmen areagotu da azken hogei urtetan. 2008 eta 2017 bitarte, 44.000 pertsona izatetik 65.000 pertsona baino gehiago izatera pasa dira (% 4,8ko hazkundea izan du talde horrek). Beraz, populazio osoaren % 9,1 osatzen du atzerrian jaio eta gaur egun Gipuzkoan bizi den populazioak. EAEko batezbestekoaren antzekoa da proportzio hori (% 9), eta Estatu osokoa (% 13,3) baino apalagoa.

6. taula. Gipuzkoako migrazio eta atzerriko pertsonen adierazleak. 1998-2017

	Kanpo emigrazioak[1]	Kanpo immigrazioak[2]		Kanpo migrazio saldoa[3]	Atzerrian jaiotako pertsonak		Atzerritar nazionalitateko pertsonak	
		Guztira	Atzerrikoak		Guztira	%, populazio osoarekiko	Guztira	%, populazio osoarekiko
1998	4.223	4.117	291	-106	5.243	% 0,8	5.301	% 0,8
1999	4.543	4.700	569	+157	6.964	% 1,0	6.359	% 0,9
2000	4.559	6.001	893	+1.442	9.458	% 1,4	7.903	% 1,2
2001	5.000	7.760	1.197	+2.760	12.428	% 1,8	8.856	% 1,3
2002	5.556	7.359	2.507	+1.803	15.860	% 2,3	11.716	% 1,7
2003	6.659	8.046	2.777	+1.387	19.620	% 2,9	14.878	% 2,2
2004	6.744	8.095	3.206	+1.351	23.450	% 3,4	18.232	% 2,7
2005	6.672	10.374	4.701	+3.702	28.604	% 4,2	21.536	% 3,1
2006	8.700	11.644	6.015	+2.944	32.861	% 4,7	25.290	% 3,7
2007	8.643	14.327	7.904	+5.684	36.916	% 5,3	29.040	% 4,2
2008	9.194	13.535	7.179	+4.341	44.097	% 6,3	35.935	% 5,1
2009	9.092	10.799	4.890	+1.707	49.416	% 7,0	40.859	% 5,8
2010	8.815	10.845	4.672	+2.030	51.319	% 7,3	42.449	% 6,0
2011	9.031	11.196	4.772	+2.165	53.548	% 7,5	44.179	% 6,2
2012	8.538	10.619	3.882	+2.081	56.184	% 7,9	46.132	% 6,5
2013	10.477	11.520	4.467	+1.043	57.590	% 8,1	46.684	% 6,5
2014	10.271	12.306	4.843	+2.035	59.060	% 8,3	46.464	% 6,5
2015	10.328	12.165	5.558	+1.837	60.907	% 8,5	46.548	% 6,5
2016	9.936	13.013	6.667	+3.077	63.017	% 8,8	47.592	% 6,6
2017	--	--	--	--	65.461	% 9,1	48.652	% 6,8

1. Gipuzkoako udalerri batean sortu eta helmuga gisa EAEtik kanpoko leku bat duten migrazioak dira (bai Estatuko beste leku batera, bai atzerrira). 2. EAEtik kanpoko udalerri bateko jatorriko migrazioak dira (bai Estatuko beste leku batekoak ala atzerrikoak), eta helmuga Gipuzkoa dutenak. 3.

Iturriak: EUSTAT. Migrazio Mugimenduen Estatistika eta INE: Etengabeko Biztanle Erroldaren estatistika.

Estatutik kanpo jaiotako populazioari dagokionez (65.461 2017an), % 45,5 Amerikako herrialdetatik datoz. Horietatik, erdia baino gehiago (% 57) bost herrialde hauetakoa da: Nikaragua, Kolonbia, Ekuador, Honduras eta Argentina. Gainera, % 27,6 Europako herrialdetakoak dira, batez ere EB-28ko herrialdeetakoak (atzerrian jaiotako pertsona guztien % 22,5), eta horien artean, hein handiagoan Errumaniakoak (% 7,1), Portugalgoak (% 5,3) eta Frantziakoak (% 4,2). Azkenik, Estatutik kanpo jaiotako eta Gipuzkoan erroldatutako pertsonen % 19,3 Afrikakoak dira —horietatik % 58 Marokokoak dira—, % 7,5 Asiakoak, batez ere Pakistan eta Txinakoak.

7. taula. Atzerrian jaiotako populazioaren banaketa, jatorriko herrialdearen arabera, Lurralde Historikotan banatuta. 2017

	Gipuzkoa		Araba	Bizkaia
	Kopurua	Banaketa (%)	Banaketa (%)	Banaketa (%)
+EUROPAKO HERRIALDEAK	**18.043**	**% 27,6**	**% 18,9**	**% 22,2**
- EB	14.760	% 22,5	% 14,5	% 19,3
Errumania	4.651	% 7,1	% 4,2	% 9,8
Portugal	3.448	% 5,3	% 3,9	% 2,3
Frantzia	2.780	% 4,2	% 1,9	% 2,6
Alemania	798	% 1,2	% 1,2	% 1,2
- EBtik kanpo	3.283	% 5,0	% 4,4	% 2,9
Ukraina	1.460	% 2,2	% 1,4	% 0,6
Errusia	705	% 1,1	% 0,7	% 1,0
+AFRIKAKO HERRIALDEAK	**12.651**	**% 19,3**	**% 32,2**	**% 19,5**
Maroko	7.364	% 11,2	% 15,6	% 8,9
Aljeria	1.439	% 2,2	% 6,0	% 1,6
Senegal	1.200	% 1,8	% 1,2	% 2,9
Nigeria	683	% 1,0	% 3,7	% 1,4
+AMERIKAKO HERRIALDEAK	**29.762**	**% 45,5**	**% 41,3**	**% 51,3**
- ERDIALDEKO AMERIKA ETA KARIBE	10.887	% 16,6	% 6,4	% 7,9
Nikaragua	4.271	% 6,5	% 0,5	% 2,9
Honduras	2.920	% 4,5	% 0,4	% 1,3
Dominikar Errepublika	1.858	% 2,8	% 3,3	% 1,3
- IPAR AMERIKA	1.431	% 2,2	% 1,1	% 2,1
- HEGO AMERIKA	17.444	% 26,6	% 33,8	% 41,3
Kolonbia	4.011	% 6,1	% 12,2	% 10,4
Ekuador	3.312	% 5,1	% 4,0	% 3,8
Argentina	2.384	% 3,6	% 2,2	% 2,5
Brasil	1.841	% 2,8	% 3,6	% 3,2
+ ASIAKO HERRIALDEAK	**4.888**	**% 7,5**	**% 7,4**	**% 6,7**
Pakistan	2.174	% 3,3	% 4,1	% 1,3
Txina	1.362	% 2,1	% 2,3	% 3,4
+ OZEANIAKO HERRIALDEAK	**117**	**% 0,2**	**% 0,1**	**% 0,3**
GUZTIRA (% guztira)	**65.461**	**% 9,1**	**% 10,9**	**% 8,3**

Iturria: INE. Etengabeko Biztanle Erroldaren estatistika.

3.2 2018-2021 eperako populazio zenbatespena

Agiri honetan Gipuzkoako populazioaren bilakaerarako erabilitako hipotesiak egiteko orduan, Eustatek 2031 urtera arte argitaratutako proiekzio demografikoak hartu dira oinarritzat. Proiekzio horiek osatzeko orduan kontuan hartutako hipotesi nagusiak hauek dira:

- **Bizi itxaropenak gora egiten jarraituko du.** Gipuzkoaren kasuan, bizi itxaropen hau zenbatetsi da 2021. urterako: 81,8 urte gizonetan eta 87,52 urte emakumeetan. Horrek esan nahi du 2017 eta 2021 bitarte, gizonen bizi itxaropena 1,2 urte luzatuko dela, eta emakumeena, berriz, 0,82 urte luzatuko dela.

- **Ugalkortasuna apur bat areagotuko da, baina jaiotza kopuruak behera egingo du, adin ugalkorrean dauden emakumeen kopuruak behera egingo duelako.** Aztertutako eperako hauek izango lirateke datuak: 2017an 6.200 jaiotza egon ziren, eta 2021ean, berriz, 5.800 jaiotza egongo dira.

- **Migrazio saldoa positiboa izango da eta horri esker populazioa handituko da.** Eustaten aurreikuspenen arabera, 2017 eta 2021 bitarte, immigrazio maila egungo antzeko mailan mantenduko da (hau da, urtean 14.100 pertsona inguru iritsiko dira Gipuzkoara), eta emigrazioek apur bat behera egingo dute. Laburbilduz, epe osorako migrazio positiboa zenbatetsi da, eta 2021. urterako 3.100 pertsona gehiago izango ditu.

Eustatek Gipuzkoarako egindako proiekzio demografikoen emaitza globalak, hain zuzen ere 2018 eta 2021 bitartekoak, azpiko taulan ageri dira zehaztuta.

8. taula. Populazioaren bilakaera aurreikusia (milatan adierazita), adin tarteen arabera. Gipuzkoa 2018-2021

	2018			2021		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
0 - 4	16,7	16,0	32,7	15,9	15,2	31,1
5 - 9	19,0	17,9	36,9	17,7	16,9	34,6
10 - 14	18,2	17,3	35,5	19,6	18,4	38,0
15 - 19	16,8	15,5	32,3	18,4	17,4	35,8
20 - 24	15,8	14,9	30,7	17,1	16,2	33,3
25 - 29	16,6	16,2	32,8	16,5	16,0	32,5
30 - 34	20,3	19,9	40,2	17,8	17,8	35,6
35 - 39	26,5	26,0	52,5	21,8	21,7	43,5
40 - 44	30,8	29,0	59,8	28,3	27,6	55,9
45 - 49	28,5	27,3	55,8	30,2	28,8	59,0
50 - 54	27,1	27,4	54,5	28,0	27,2	55,2
55 - 59	25,0	25,7	50,7	26,3	26,9	53,2
60 - 64	21,7	22,8	44,5	23,9	25,0	48,9
65 - 69	20,1	21,8	41,9	20,0	22,1	42,1
70 - 74	16,9	19,6	36,5	18,5	21,1	39,6
75 - 79	11,3	14,4	25,7	13,8	17,5	31,3
80 - 84	9,8	15,2	25,0	9,0	13,1	22,1
85 - 89	5,5	10,7	16,2	6,4	11,8	18,2
90 - 94	1,8	5,2	7,0	2,5	6,4	8,9
95 - 99	0,3	1,3	1,6	0,5	1,9	2,4
100 eta gehiago	0,0	0,2	0,2	0,0	0,2	0,2
Guztira	348,7	364,3	713	352,2	369,2	721,4

Iturria: EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2031.

Proiekzio demografikoen arabera, 2018-2021 epean, Gipuzkoako populazioa apur bat handituko da. Edonola ere, Gipuzkoako populazioko adin egituran gertatuko dira epe horretako aldaketa garrantzitsuenak.

Aztertutako epea motza da, eta beraz, aldaketa demografikoak ez dira handiak. Hala ere, 65 urteko eta hortik gorako populazioaren pisu erlatiboak argi egingo du gora, lau urtetan, Gipuzkoako populazio osoaren % 21,9 izatetik % 22,8 izatera pasako bailitzateke (8.100 pertsona). Beste alde batetik, 80 urteko eta hortik gorako populazioak motelago egingo du gora, Gerra Zibilean zehar eta gerraondo garaian jaiotako belaunaldiak adin tarte horretan egongo baitira. 2018 eta 2021 bitarte, 1.100 pertsonakoa izango da 80 urteko eta hortik gorako populazioaren hazkundea, eta aurreko epean (2014-2017), berriz, hazkunde hori 3.932 pertsonakoa izan zen.

9. taula. Populazioaren bilakaera aurreikusia, adin tarteen arabera. Gipuzkoa 2018-2021

	Populazioa guztira (milatan)			%, populazio osoa kontuan hartuta	
	2018	2021	Aldea	2018	2021
0-19	138,4	139,5	1,1	% 19,3	% 19,3
20-44	212,2	200,8	-11,4	% 29,7	% 27,8
45-64	208,1	216,3	8,2	% 29,1	% 30,0
65 urte eta gehiago	156,7	164,8	8,1	% 21,9	% 22,8
80 urte eta gehiago	*50,7*	*51,8*	*1,1*	*% 7,1*	*% 7,2*
Guztira	715,4	721,4	6,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2031.

Azkenik, populazio gazteena apur bat handituko litzateke. Aitzitik, 20 eta 44 urte bitarteko populazioak nabarmen egingo du behera, adin tarte horretako populazio bolumenak % 11,4 egingo baitu behera.

3. grafikoa. Biztanleriaren piramidea. Gipuzkoa 2018-2021



Iturria: EUSTAT. Proiekzio demografikoak 2031.

3.3 Mendekotasun egoerak

Mendekotasun balorazioa duten pertsona kopuruari buruzko foru erregistroak ematen duen informazioari esker, Gipuzkoan gaur egun mendekotasunak duen prebalentziaren benetako maila nolakoa den jakin dezakegu. Ikuspegi horretatik begiratuta, azpimarratu behar da, informazio horren arabera, mendekotasunaren balorazioa egin zaien pertsona kopuruaren berri bakarrik ematen duela erregistro informazio horrek, —eta beraz, ildo horretan, ez duela egoera horren benetako prebalentzia islatzen—. Hala ere, erregistro horren datuak osatzeko prozesu bat egiten da, mendekotasunaren balioespenarena, hain zuzen; eta hamar urte inguru baino gehiagoren ondoren, behar bezala finkatuta dago prozesu hori.

2017ko abenduaren 31n, horrelakoa zen egoera Gipuzkoan: I. mailako mendekotasuna duten 28.366 pertsona zeuden gutxienez, eta beste 7.809 pertsonek, puntuazio apalagoa eduki arren, eguneroko oinarrizko jarduerak edo jarduera instrumentalak egiteko nolabaiteko mugak zituzten (arriskua).

10. taula. Arrisku egoeran edo mailakako mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua, sexuaren eta adin taldeen arabera banatuta. Gipuzkoa 2017

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte +	Guztira
Gizonak						
Arriskua	152	248	557	859	1.224	3.040
Mendekotasuna	130	458	3.300	2.238	4.283	10.409
- I. maila	27	156	1.677	978	1.756	4.594
- II. maila	67	178	1.038	758	1.424	3.465
- III. maila	36	124	585	502	1.103	2.350
Guztira	282	706	3.857	3.097	5.507	13.449
Emakumeak						
Arriskua	169	244	512	1.231	2.613	4.769
Mendekotasuna	81	221	2.405	2.939	12.311	17.957
- I. maila	23	77	1.091	1.429	4.468	7.088
- II. maila	37	76	786	930	4.166	5.995
- III. maila	21	68	528	580	3.677	4.874
Guztira	250	465	2.917	4.170	14.924	22.726
Emakumeak eta gizonak						
Arriskua	321	492	1.069	2.090	3.837	7.809
Mendekotasuna	211	679	5.705	5.177	16.594	28.366
- I. maila	50	233	2.768	2.407	6.224	11.682
- II. maila	104	254	1.824	1.688	5.590	9.460
- III. maila	57	192	1.113	1.082	4.780	7.224
Guztira	532	1.171	6.774	7.267	20.431	36.175

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. 2017ko abenduaren 31n bizirik zeuden eta mendekotasuna baloratzeko baremoaren araberako balorazioa zuten pertsonen erregistroa.

Arestian ageri diren datuek agerian uzten dute emakumeak direla mendekotasun egoeran daudela baloratutako pertsonen % 63, eta 80 urteko edo hortik gorako pertsonak direla nolabaiteko mendekotasun maila duten pertsona guztien % 58.

Informazio hori Gipuzkoako 2017ko populazio egoiliarrari buruzko datuekin gurutzatzen badugu, ikusiko dugu populazioaren % 3,94 dela mendekotasunaren prebalentzia.

11. taula. Arrisku egoeraren edo mailakako mendekotasun egoeraren prebalentzia tasa, sexuaren eta adin taldeen arabera banatuta. Gipuzkoa 2017

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte +	Guztira
Gizonak						
Arriskua	0,745	0,562	0,252	1,763	7,016	0,865
Mendekotasuna	0,637	1,039	1,496	4,594	24,549	2,963
- I. maila	0,132	0,354	0,760	2,007	10,065	1,308
- II. maila	0,328	0,404	0,471	1,556	8,162	0,986
- III. maila	0,176	0,281	0,265	1,030	6,322	0,669
Guztira	1,382	1,601	1,748	6,357	31,564	3,829
Emakumeak						
Arriskua	0,871	0,584	0,235	2,180	7,965	1,296
Mendekotasuna	0,418	0,529	1,105	5,204	37,526	4,879
- I. maila	0,119	0,184	0,501	2,530	13,619	1,926
- II. maila	0,191	0,182	0,361	1,647	12,699	1,629
- III. maila	0,108	0,163	0,243	1,027	11,208	1,324
Guztira	1,289	1,113	1,341	7,383	45,490	6,175
Emakumeak eta gizonak						
Arriskua	0,807	0,573	0,244	1,987	7,635	1,086
Mendekotasuna	0,530	0,791	1,302	4,921	33,020	3,944
- I. maila	0,126	0,271	0,632	2,288	12,385	1,624
- II. maila	0,261	0,296	0,416	1,605	11,123	1,315
- III. maila	0,143	0,224	0,254	1,029	9,512	1,004
Guztira	1,337	1,364	1,546	6,908	40,655	5,029

Iturriak: Gipuzkoako Foru Aldundia. 2017ko abenduaren 31n bizirik zeuden eta mendekotasuna baloratzeko baremoaren araberako balorazioa zuten pertsonen erregistroa; INE Etengabeko Erroldaren Estatistika, 2017ko urtarrilaren 1a.

Mendekotasun egoerek epe motzean izango duten prebalentziaren zenbatespena egiteko orduan, egungo mendekotasun tasak mantenduko direla jo da hipotesitzat, hori baita egoera probableena. 2021rako zenbatetsitako emakume eta gizon kopuruaren eta populazioaren adinaren arabera kalkulatu da prebalentzia hori.

12. taula. Arrisku edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen kopurua, mailaka, sexuaren eta adin taldeen arabera banatuta. Gipuzkoa 2021

	0-5 urte	6-17 urte	18-64 urte	65-79 urte	80 urte +	Guztira
Gizonak						
Arriskua	145	252	549	922	1.291	3.158
Mendekotasuna	124	465	3.250	2.402	4.517	10.759
- I. maila	26	158	1.652	1.050	1.852	4.738
- II. maila	64	181	1.022	814	1.502	3.582
- III. maila	34	126	576	539	1.163	2.439
Guztira	269	717	3.799	3.325	5.808	13.917
Emakumeak						
Arriskua	162	247	504	1.323	2.660	4.897
Mendekotasuna	78	224	2.367	3.159	12.534	18.361
- I. maila	22	78	1.074	1.536	4.549	7.259
- II. maila	35	77	774	1.000	4.241	6.127
- III. maila	20	69	520	623	3.743	4.976
Guztira	240	472	2.871	4.482	15.194	23.258
Emakumeak eta gizonak						
Arriskua	307	499	1.053	2.245	3.951	8.055
Mendekotasuna	201	689	5.617	5.561	17.050	29.120
- I. maila	48	237	2.725	2.586	6.401	11.996
- II. maila	99	258	1.796	1.813	5.743	9.709
- III. maila	54	195	1.096	1.162	4.907	7.414
Guztira	508	1.189	6.670	7.806	21.002	37.175

Iturria: erakundeak berak egindako taula.

Lortutako emaitzetan ageri den moduan, 2017an 28.366 pertsona bazeuden mendekotasun egoeran (I eta III bitarteko mailak), aurreikuspenen arabera, 2021ean, 29.120 pertsona egongo dira egoera horretan. Horrek esan nahi du % 2,7ko igoera egongo dela.

13. taula. Arrisku edo mendekotasun egoeran dauden pertsona kopuruaren aldea, mailaka eta adin taldeen arabera banatuta. Gipuzkoa 2017-2021

		Arriskua	I, II eta III mailak				Guztira
			I. maila	II. maila	III. maila	Guztira	
2017	0-5 urte	321	50	104	57	211	532
	6-17 urte	492	233	254	192	679	1.171
	18-64 urte	1.069	2.768	1.824	1.113	5.705	6.774
	65-79 urte	2.090	2.407	1.688	1.082	5.177	7.267
	80 urte +	3.837	6.224	5.590	4.780	16.594	20.431
	Guztira	7.809	11.682	9.460	7.224	28.366	36.175
2021	0-5 urte	307	48	99	54	201	508
	6-17 urte	499	237	258	195	689	1.189
	18-64 urte	1.053	2.725	1.796	1.096	5.617	6.670
	65-79 urte	2.245	2.586	1.813	1.162	5.561	7.806
	80 urte +	3.951	6.401	5.743	4.907	17.050	21.002
	Guztira	8.055	11.996	9.709	7.414	29.120	37.175
2021 eta 2017 arteko aldea	0-5 urte	-14	-2	-5	-3	-10	-24
	6-17 urte	+7	+4	+4	+3	+10	+18
	18-64 urte	-16	-43	-28	-17	-88	-104
	65-79 urte	+155	+179	+125	+80	+384	+539
	80 urte edo gehiago	+114	+177	+153	+127	+456	+571
	Guztira	+246	+314	+249	+190	+754	+1.000

Iturria: erakundeak berak egindako taula.

3.4 Babesgabetasun egoerak.

Babesgabetasun egoeren esparruan, Gizarte Zerbitzuen esku hartze egoerak hainbat kolektibori daude zuzenduta:

- Babesgabetasun egoeran edo arriskuan dauden adingabekoei.
- Indarkeria matxistaren emakume biktimei.
- Babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonei.
- Tratu txarrak edo arreta arduragabea jasotzen dituztelako babesgabetasun egoeran dauden pertsona helduei, gehienetan autonomia galera maila ezberdinak dituztenak.

Lau kolektibo horietan, egun babesgabetasun egoerek duten prebalentzia zehaztuko dugu jarraian.

3.4.1. Babesgabetasun egoeran edo arriskuan dauden adingabekoak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren datuei esker egin daiteke babesgabetasun egoeren prebalentziari buruzko lehenengo hurbilketa bat, zehazki egoera larrienei buruzkoa.

Foru Aldundiaren datuen arabera, babesgabetasun egoera posiblean zeuden 971 adingaberen inguruko jakinarazpenak jaso zituzten 2017. urtean. Jakinarazpen horien % 37 (359) familia erreferentedun adingabekoenak ziren, % 18,5 adingabeko arau hausleenak (180 adingabeko) eta % 44,5 bakarrik dauden adingabeko atzerritarrenak (432). Bilakaeraren ikuspegitik, aipagarria da 2016an eta 2017an gorakada bat antzeman dela bakarrik dauden adingabe atzerritarren multzoan, eta adingabeko arau hausleen inguruko jakinarazpenetan, berriz, heinean heineko beherakada egon dela.

Harrera egoerei dagokienez, 2017 amaieran guztira 685 haur eta nerabe zeuden harrera egoeran. Horietatik 336 adingabekok (% 49) egoitza harrera zerbitzuan jasotzen zuten arreta, eta 349 (% 51) familia harrera egoeran zeuden.

Halaber, aipagarria da, 2017ko abenduaren 31n, guztira 1.112 adingabekok parte hartzen zuela abian zeuden gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko programa ezberdinetan.

14. taula. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako babesgabetasun egoeran dauden adingabekoen populazioaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2012-2017 bilakaera (%)
Urtean zehar jasotako jakinarazpenetan inplikatutako adingabekoak							
- Familia erreferentedunak	306	312	367	375	385	359	% 17
- Adingabeko arau hausleak	332	353	300	259	199	180	-% 46
- Bakarrik dauden atzerritar adingabekoak	138	148	159	173	305	432	% 213
- Guztira	776	813	826	807	889	971	% 25
Abenduaren 31n harrera egoeran zeuden adingabekoak							
- Egoitza harreran	263	288	293	306	316	336	% 28
- Familia harreran	319	323	335	254	348	349	% 9
- Harrera guztira	582	611	628	560	664	685	% 18
Abenduaren 31n gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze prometan zein esku hartze psikosozialeko prometan parte hartzen zuten adingabeko kopurua	862	802	1.025	1.287	1.149	1.112	% 29
Abenduaren 31n Haurren eta Nerabeen Babeserako Sistemak artatutako adingabeko kopurua guztira	z.g.	z.g.	1.127	1.402	1.481	1.435	--

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017ko memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Zifra horiek oinarritzat hartuta, babesgabetasun egoera larriek Gipuzkoan duten prebalentzia estimatuko balitz, adingabekoen populazioaren % 1,142 inguru izango litzateke tasa hori.

15. taula. 18 urtetik beherako 100 pertsona bakoitzeko tasa, Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako adingabeko babesgabeen populazioa oinarritzat hartuta. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Urtean zehar jasotako jakinarazpenetan inplikatutako adingabekoak						
- Familia erreferentedunak	% 0,254	% 0,255	% 0,298	% 0,301	% 0,308	% 0,286
- Adingabeko arau hausleak	% 0,275	% 0,289	% 0,243	% 0,208	% 0,159	% 0,143
- Bakarrik dauden atzerritar adingabekoak	% 0,114	% 0,121	% 0,129	% 0,139	% 0,244	% 0,344
- Guztira	% 0,644	% 0,665	% 0,670	% 0,649	% 0,711	% 0,773
Abenduaren 31n harrera egoeran zeuden adingabekoak						
- Egoitza harreran	% 0,218	% 0,236	% 0,238	% 0,246	% 0,253	% 0,267
- Familia harreran	% 0,265	% 0,264	% 0,272	% 0,204	% 0,278	% 0,278
- Harrera guztira	% 0,483	% 0,500	% 0,509	% 0,450	% 0,531	% 0,545
Gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze prometan zein esku hartze psikosozialeko prometan parte hartzen duten adingabeko kopurua	% 0,715	% 0,656	% 0,831	% 1,034	% 0,919	% 0,885
Abenduaren 31n Haurren eta Nerabeen Babeserako Sistemak artatutako adingabeko kopurua guztira	z.g.	z.g.	% 0,914	% 1,127	% 1,184	% 1,142

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017ko memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Babes esparruko erakunde eskudunek artatutako adingabeko pertsonak alde batera utzita, badaude babesgabetasun egoera arinak edo ertainak, arrisku egoera handiko egoerak, bai antzeman gabe daudenak edo oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutakoak. Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuaren eskaria oinarritzat hartuta, adibidez zehaztu daiteke, 2017. urtean, eskolaratze eta jokabide larrien eta familia arduragabekeriaren edo tratu txarren ondoriozko arazo larrien eragina kontuan hartuta, arazo horiek dituzten adingabekoen populazioa 1.921 pertsonakoa zela 2017. urtean, hau da, 18 urtetik beherako populazioaren % 1,53.

16. taula. Hainbat arrazoi direla eta babesgabetasun egoeran dauden adingabeen populazioaren zenbatespena. Gipuzkoa 2014-2017

	Gizarte Zerbitzuen eskariaren eta Premiaren Inkestaren araberako eragina	Erasandako pertsona kopuruaren zenbatespena
	EAE 2014	Gipuzkoa 2017
Eskola absentismoa edo bi urte ala gehiagoko eskola atzerapena	*6 eta 16 urte bitarteko populazioaren % 0,402*	319
Integrazio arazo larriren bat eskolan	*6 eta 16 urte bitarteko populazioaren % 0,729*	578
Jokabide edo jarrera arazoak	*15 urtetik beherako populazioaren % 0,612 eta 15 eta 17 urte bitarteko populazioaren % 0,894*	825
Arreta gabezia/familia arbuio edo tratu txar, jazarpen edo indarkeria arazoak	*15 urtetik beherako populazioaren % 0,146 eta 15 eta 17 urte bitarteko populazioaren % 0,223*	199
Babesgabetasun arriskuan dagoen populazioa, guztira (zenbatespena)	*17 urtetik beherako populazioaren % 1,529*	1.921

Iturria: Erakundeak berak egindako taula, Eusko Jaurlaritzaren datu hauek oinarritzat hartuta: Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika – Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak hala eskatuta, babesgabetasun arriskuan dauden haurrei eta nerabeei Gipuzkoako udal gizarte zerbitzuek emandako arretaren inguruko azterlana egin zen 2017. urtean. Azterlan horren arabera, oinarrizko Gizarte Zerbitzuek babesgabetasun arrisku arin edo ertaineko egoerei aurre egiteko emandako arretaren tasa hau da: adingabeko populazioaren % 1,302.

3.4.2 Indarkeria matxistaren emakume biktimak

Estatistika eta administrazio iturri ezberdinek emandako datuen arabera, gaur egun, % 0,31 eta % 4,3 artekoa da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebalentzia.

17. taula. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebalentzia, iturri ezberdinen arabera. Gipuzkoa 2015-2016

Azterlana/Erregistroa	Emakumeen aurkako indarkeriaren makroinkesta Indarkeria fisiko edo sexuala azken 12 hilabetetan	Emakunde Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kopurua	Juzgados de Violencia sobre la mujer (Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Epaitegiak) Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak jasotako salaketetan
Urtea	**2015**	**2016**	**2016**
Kolektiboa	**16 urteko eta gehiagoko emakumeak**	**Emakumeak**	**Emakumeak**
Esparrua	**Espainia**	**Gipuzkoa**	**Gipuzkoa**
Tasa 100 emakume bakoitzeko	% 2,70	% 0,308	% 0,355
Emakume kopurua	8.415	1.129	1.302

*Oharra: kontsultatutako tasa edo iturri ezberdinek kolektiko eta esparru zehatz betarako adierazitako balioa adierazten du tasak. Datuen urtean Gipuzkoan bizi den emakume kopuruari tasa hori aplikatzean lortzen den emaitza da emakume kopurua.
Iturriak: Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza. Emakumearen aurkako indarkeriaren makroinkesta 2015, Emakunde. Emakumeen aurkako indarkeriaren EAEko datu estatistikoen analisia eta interpretazioa. 2016ko eta 2017ko lehenengo hiruhileko estatistika datuak. CGPJ. Estatistika judiziala. Emakumeen aurkako indarkeriaren Epaitegiak.

2015ean Espainiako estatu mailan egindako *Emakumeen aurkako indarkeriaren makroinkestaren* arabera, 16 urteko edo gehiagoko emakumeen % 2,7k jasan du indarkeria fisiko eta/edo sexuala azken 12 hilabetetan, bikotekide edo bikotekide ohien eskutik; eta indarkeria fisiko edo sexualeko egoera guztietatik, kasuen % 26,8an genero indarkeriaren berri izan zuten Estatuko indar eta segurtasun taldeek.

Bestalde, Emakundek argitaratutako datuen arabera, 2016. urtean, emakumeen aurkako indarkeriaren 1.129 biktima egon ziren Gipuzkoan. Beraz, indarkeria horren tasa hau izan zen: % 0,308. Estatistika Judizialak ere zifra oso antzekoa ematen du. Juzgados de Violencia sobre la mujer (Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiak) epaitegiaren jarduera datuen arabera, 2016. urtean, emakumeen aurkako indarkeriaren 1.302 salaketa jaso ziren Gipuzkoan. Horrek esan nahi du % 0,355eko prebalentzia dagoela.

Hala ere, arestian aipatutako datuetatik ondoriozta daitekeen moduan, indarkeria matxistaren emakume biktima gehienek ez dituzte erasotzaileak salatzen, eta beraz, emakume biktimen inguruko datu administratiboak kontuan hartuta kalkulatzen den intzidentzia tasa —% 0,355— emakumeen populazio osoari egindako berariazko inkestak xedatutakoa — % 2,7, emakumeen aurkako indarkeriaren Makroinkestaren arabera— baino askoz ere apalagoa da. Ondorioz, tratu txarren emakume biktimek eska ditzaketen Gizarte Zerbitzuak estimatzeko orduan, kontuan hartu behar da, Gizarte Zerbitzuak erabili ahal izateko, ez dela nahitaez erasotzailearen aurkako salaketarik aurkeztu behar. Hala ere, emakumeak publikoki aitortu behar du tratu txarrak jasaten dituela.

Hori guztia kontuan hartuta, indarkeria matxistaren emakume biktimentzako Gizarte Zerbitzuen etorkizuneko eskatzaileen kopurua zehazteko orduan, 2016. urtean emakumeen aurkako indarkeriagatik aurkeztutako salaketen tasa hartu da kontuan: hau da, emakumezko populazioaren % 0,355.

3.4.3 Babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonak

Adineko pertsonek, eta batez ere autonomia gabezia gehien dutenek, babesgabetasun egoerak jasateko arrisku handiagoa dute. Egoera horien artean ohikoenak dira bakardadea eta isolamendua, baina baita tratu txarrak edo gehiegikeriak jasateko kalteberatasun handiagoa ere, hein txikiagoan izan arren.

Adineko pertsonek etxean jasaten dituzten tratu txarren prebalentziari dagokionez, EAEn egindako azken azterlanak[1] adierazten du 60 urteko edo gehiagoko populazioaren % 0,9 nolabaiteko tratu txarren biktima dela. Azterlan horren arabera, tratu txarren intzidentzia handiagoa da 60 eta 74 urte bitarteko adineko pertsonen artean (% 1,1), 74 urtetik gorako pertsonen artean baino (% 0,6). Prebalentzia hori Gipuzkoako adineko pertsonen populazioari aplikatzen bazaio, ondorioztatzen da 2017. urtean adineko 1.400 pertsona inguruk jasan zituztela tratu txarrak.

[1] Sancho, M. (zuz.). Euskal Autonomia Erkidegoko Adinekoen aurkako tratu txarren prebalentziari buruzko azterlana. Seriea: Gizartea Hobetuz, 75. zk, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2011, 168. orr.

18. taula. Babesgabetasun egoeran dauden 65 urteko edo gehiagoko pertsonen prebalentzia, iturri ezberdinen arabera, eta erasandako pertsona kopuruaren zenbatespena. Gipuzkoa

Azterlana/Erregistroa	EAEko adineko pertsonen aurkako tratu txarren prebalentziaren inguruko azterlana	Bakardade edo tristura arazo larrien intzidentzia, Gizarte Premiei buruzko Inkestaren arabera
Urtea	2010	2014
Kolektiboa	60 urteko edo gehiagoko pertsonak	65 urteko edo gehiagoko pertsonak
Esparrua	EAE	EAE
Tasa 65 urteko edo gehiagoko 100 pertsona bakoitzeko	% 0,90	% 3,83
Pertsona kopurua*	1.399	5.954

*Oharra: kontsultatutako azterlan edo iturri ezberdinek kolektibo eta esparru jakin baterako emandako balioa adierazten du tasak. 2017. urtean dagokion gipuzkoar populazioari tasa hori aplikatzean lortzen den zifra da pertsona kopurua.
Iturriak: erakundeak berak egindako taula, lan hau oinarritzat hartuta: Sancho, M. (zuz.) Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen aurkako tratu txarren prebalentziari buruzko azterlana. Seriea: Gizartea Hobetuz, 75. zk., Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 2011; eta Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistita – Gizarte Premiei buruzko Inkesta. 2014.

Isolamenduarekin eta bakardadearekin zerikusia duten egoerei dagokienez, 2014ko Gizarte Premiei buruzko Inkestaren arabera, Euskadiko 65 urteko eta gehiagoko populazioaren % 3,83 inguruk bakardade edo tristezia arazo larriak ditu; eta % 4,29ek gizarte arazo larriren bat dauka harreman pertsonaletan, familia harremanetan edo harreman sozialetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoen aurkako tratu txarren prebalentziari buruzko azterlana oso zehatza denez, babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonek eska ditzaketen zerbitzuen etorkizuneko eskariaren zenbatespena egiteko orduan, azterlan horrek zehaztutako tasa hartu da erreferentzia gisa: hau da, adineko populazioaren % 0,9.

3.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak

Desgaitasuna duten 65 urtetik beherako pertsonen babesgabetasun egoerak oso zailak dira bai antzematen, bai kuantifikatzen. Duela gutxira arte ez zegoen gai horri buruzko azterlan epidemiologikorik, eta horrelako arazo moten intzidentziari buruzko datuak, desgaitasuna duten pertsonen kolektibo jakin bati buruzkoak izan ohi dira. Hala ere, zalantzarik gabe aitortzen da desgaitasuna duten pertsonen kolektiboa bereziki kaltebera dela jazarpenaren eta tratu txarren aurrean, hein handi batean gaitasun gutxiago baitute beren burua defendatzeko eta egoera jakin batzuk jazarpena edo tratu txarrak direla identifikatzeko.

Datu gutxi dauden arren, 2012. urtean, desgaitasuna duten pertsonen aurkako tratu txarren prebalentziaren inguruko azterlanen meta analisi bat argitaratu zen The Lancet[2] aldizkarian. Meta analisi horren arabera, edozein indarkeria motaren (fisikoa, sexuala edo emakumeen aurkakoa) prebalentzia konbinatua % 24,3 da buru gaixotasunak dituzten pertsonen artean, % 6,1 adimen urritasuna duten pertsonen artean eta % 3,2 bestelako desgaitasunak dituzten pertsonen artean.

Informazio hori eta desgaitasunen bat duten pertsonen foru erregistroak % 65ko edo hortik gorako desgaitasuna maila duten (urritasun mota nagusiaren arabera) 18 eta 64 urte bitarteko pertsona kopuruaren inguruan emandako datuak oinarritzat hartuta, ondoriozta daiteke, gaur egun, horrelako ezaugarriak dituzten 912 pertsona inguru babesgabetasun egoeran egon daitezkeela Gipuzkoan.

19. taula. Desgaitasuna duten eta babesgabetasun egoeran dauden 18 eta 64 urte bitarteko pertsonen prebalentzia eta 2013an Gipuzkoan erasandako pertsona kopuruaren zenbatespena

	Desgaitasuna duten pertsonen kopurua ((>= % 33), urritasun nagusiaren arabera	Babesgabetasun egoeren prebalentzia multzo bakoitzean	Babesgabetasun egoeren prebalentzia 18-64 urte bitarteko populazioan	Babesgabetasun egoeran dauden pertsonen kopuruaren zenbatespena
	2017	--	2017	2017
Adimen urritasuna	1.157	% 6,1	% 0,016	71
Buru nahasmendua	2.766	% 24,3	% 0,153	672
Bestelako desgaitasunak	5.297	% 3,2	% 0,039	170
Guztira	9.220	--	% 0,208	912

Iturriak: Erakundeak berak egindako taula, azterlan hau oinarritzat hartuta: Hughes, K, et al. "Prevalence and risk of violence against adults with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies*". The Lancet*, 379. bol., 9826. zk., 2012. Gipuzkoan 2017. urtean desgaitasunen zuten pertsonen kopuru osoa kalkulatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistroaren berariazko datu ustiaketa bat hartu da kontuan.

3.4.5. 2021 urtean babesgabetasun egoeran egongo den populazioaren zenbatespena

3.4.5.1. Babesgabetasun egoeran edo arriskuan dauden adingabekoak

Epe ertainera haurren babesgabetasun egoerek izango duten bilakaera zenbatesteak zailtasun bikoitza du. Lehenik eta behin, arazoaren berezko izaeragatik, faktore ezberdinen eta aldakorren ondorioz sor baitaitezke; eta bestetik, oso zaila baita bakarrik dauden zenbat atzerritar adingabeko iritsiko diren jakitea, eta fenomeno hori oso nabarmen areagotu da azken urtetan.

[2] Hughes K, Bellis MA, Jones L, Wood S, Bates G, Eckley L, McCoy E, Mikton C, Shakespeare T, Officer A. "Prevalence and risk of violence against adults with disabilities: a systematic review and meta-analysis of observational studies", *Lancet,* 379. lib, 9826. zk. 2012.

Adibidez, arreta adierazle batzuek azken urte hauetan izandako bilakaerari begiratzen badiogu, ikusiko dugu 2012 eta 2017 bitarte, babesgabetasun egoera posiblean dauden adingabekoen inguruan jasotako jakinarazpenetan, egoera horietan dauden adingabeen kopurua % 25 areagotu dela. Tasari dagokionez, ez da horrenbeste areagotu, % 20 bakarrik, adingabekoen populazio orokorrak ere gora egin baitu. Tasak bakarrik kontuan hartuz, argi eta garbi ikusten da epe horretan, bakarrik dauden atzerritar adingabekoen inguruko jakinarazpenek nabarmen egin dutela gora (horien tasa hirukoiztu egin da), eta hein txikiago batean, familia erreferentedun adingabekoen jakinarazpenek, % 13 egin baitute gora. Aitzitik adingabe arau hausleen jakinarazpenen tasa % 48 murriztu da.

Harrera egoeran dauden adingabekoen kasuan, 2012 eta 2017 bitarteko epean, egoitza harreran dauden adingabekoen tasak (% 23) azkarrago egin du gora familia harreran dauden adingabekoen tasak (% 5) baino.

20. taula. Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuak artatutako 18 urtetik beherako 100 adingabeko babesgabe bakoitzeko tasaren bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2012-16 bilakaera (%)
Urtean zehar jasotako jakinarazpenetan inplikatutako adingabekoak							
- Familia erreferentedunak	% 0,254	% 0,255	% 0,298	% 0,301	% 0,308	% 0,286	% 13
- Adingabeko arau hausleak	% 0,275	% 0,289	% 0,243	% 0,208	% 0,159	% 0,143	-% 48
- Bakarrik dauden atzerritar adingabekoak	% 0,114	% 0,121	% 0,129	% 0,139	% 0,244	% 0,344	% 200
- Guztira	% 0,644	% 0,665	% 0,670	% 0,649	% 0,711	% 0,773	% 20
Abenduaren 31n harrera egoeran zeuden adingabekoak							
- Egoitza harreran	% 0,218	% 0,236	% 0,238	% 0,246	% 0,253	% 0,267	% 23
- Familia harreran	% 0,265	% 0,264	% 0,272	% 0,204	% 0,278	% 0,278	% 5
- Harrera guztira	% 0,483	% 0,500	% 0,509	% 0,450	% 0,531	% 0,545	% 13
Gizarte eta hezkuntza alorreko esku hartze prometan zein esku hartze psikosozialeko prometan parte hartzen duten adingabeko kopurua	% 0,715	% 0,656	% 0,831	% 1,034	% 0,919	% 0,885	% 24
Abenduaren 31n Haurren eta Nerabeen Babeserako Sistemak artatutako adingabeko kopurua guztira	z.g.	z.g.	% 0,914	% 1,127	% 1,184	% 1,142	--

Iturria: Haurren eta Nerabeen Babeseko Zerbitzuaren 2017ko memoria. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Arestian aipatutako datuak kontuan hartuta, joera nagusi bat da aipagarria: edozein adierazle aukeratzen dela ere, adingabeen babeserako sistemak artatutako haurren eta nerabeen tasa heinean-heinean areagotu dela azken sei urtetan. Horrekin batera kontuan hartzen badugu 2016tik aurrera, bakarrik dauden atzerritar adingabekoen inguruan jasotako jakinarazpenek

gora egin dutela, ondoriozta daiteke epe motzera, bigarren mailako arreta sarearen arreta espezializatua behar duten adingabekoen kopuruak apur bat gora egingo duela.

Aurreikuspenen arabera, urtetik urterako hazkundea % 2,5 izan daiteke, harrera egoeran dauden adingabeen eta kasuen jakinarazpenaren tasen bilakaeraren antzekoa.

Babesgabetasun arin edo ertaineko egoeren prebalentziari dagokionez, aurreikuspenen arabera, epe motz eta ertainera babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeen kopurua areagotzen duten hainbat faktore daude. Faktore horietako batzuk dira:

- Baliabide gutxiago dituzten guraso bakarreko, ezkontide banandu edo dibortziatuko familia gero eta gehiago daude.
- Atzerritar jatorriko populazioak gora egin du, babes informaleko sare ahulagoak eduki ohi dituzte, baita egoera sozioekonomiko ezegonkorragoa ere.
- Pobreziak gora egin du ardurapeko seme-alabak dituzten etxebizitzetan.

Hiru faktore horiek adierazten dute babesgabetasun arriskua duten egoerek gora egin dezaketela adingabekoen artean. Inpaktu hori kuantifikatze aldera, hipotesi gisa proposatzen da zifra hau: 2016. urtean Gipuzkoako oinarrizko Gizarte Zerbitzuek babesgabetasun arrisku arin eta ertaineko egoerei emandako arretaren tasa erregistratua oinarritzat hartuta, urtez urteko % 2ko hazkundea egongo dela.

23. taula. Adingabeko pertsonen arteko babesgabetasun egoeren intzidentziaren bilakaera zenbatetsia. Gipuzkoa 2016-2021

	2016-2017		2021	
	Tasa <18 urteko 100 pertsona bakoitzeko	Pertsonako purua	Tasa <18 urteko 100 pertsona bakoitzeko	Pertsona kopurua
Babesgabetasun larria	% 1,142	1.435	% 1,303	1.631
Babesgabetasun arina/ertaina edo babesgabetasun arriskua	% 1,302	1.628	% 1,438	1.799
Guztira	% 2,453	3.068	% 2,740	3.430

Iturria: erakundeak berak egindako taula.

3.4.5.2 Indarkeria matxistaren emakume biktimak

Estatistika Judizialak Gipuzkoako Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegien inguruan emandako informazioaren arabera, 2012 eta 2016 bitarte indarkeria matxistaren emakume biktimek aurkeztutako salaketa kopurua % 34 areagotu da. EAE mailan emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kopuruaren inguruan Emakundek emandako datuak[3] bestelakoak dira; izan ere, datu horien arabera, Gipuzkoan, emakume biktimen kopurua nahiko lineala izan da epe horretan zehar.

22. taula. Indarkeria matxistaren emakume biktima kopuruaren bilakaera, informazio iturri ezberdinen arabera. Gipuzkoa 2012-2016

	2012	2013	2014	2015	2016	2012-16 Bilakaera (%)
Emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegien datuak						
Emakume kopurua	975	964	1.084	1.140	1.302	% 33,5
Tasa 100 emakume bakoitzeko	% 0,268	% 0,265	% 0,297	% 0,311	% 0,355	% 32,3
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kopuruaren datuak						
Emakume kopurua	1.166	1.142	1.226	1.224	1.129	-% 3,2
Tasa 100 emakume bakoitzeko	% 0,321	% 0,314	% 0,336	% 0,334	% 0,308	-% 4,1

Iturriak: CGPJ. Estadística Judicial. Juzgados de violencia sobre la mujer; Emakunde. Emakumeen aurkako indarkeriaren EAEko datu estatistikoak.

Bilakaera hipotesi bat proposatzeko orduan, urtez urteko % 3,6ko hazkundea aurreikusi da 2017-2021 eperako; Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegien datuen araberako 2012-2016 eperako tasan antzemandako urtez urteko hazkundearen erdia, alegia.

23. taula. Gipuzkoako indarkeria matxistaren prebalentziaren zenbatespena. 2016-2021

	2016	2021
Tasa 100 emakume bakoitzeko	% 0,355	% 0,424
Emakume kopurua	1.302	1.566

Iturria: erakundeak berak egindako taula.

3.4.5.3 Babesgabetasun egoeran dauden adineko pertsonak

Gaur egun ez daukagu datu irmorik epe motzean adineko pertsonen artean babesgabetasun egoerek nabarmen gora egingo dutela esateko. Ildo horretan, eskuragarri ditugun datuek bi joera aurreikusteen dituzte: alde batetik, mendekotasun tasak mantendu egingo direla, eta hori

[3] Ertzaintzak bere jarduera eta eskumen esparruan ezagututako eta polizia dokumentuetan erregistratutako emakumeen aurkako indarkeriarei buruzko informazio estatistikoa hartzen dute oinarritzat datu hauek. Biktima gisa kontabilizatzen dira epe jakin batean zehar legez kontrako jarduera baten hartzaile izan diren emakumeak. Gizonek egindako indarkeriari buruzkoak dira datuak (bikotekideak, bikotekide ohiak, senide batek edo beste gizon batek).

da tratu txarren eta arreta arduragabearen aurreko arrisku faktore nagusia; eta bestetik, nolabaiteko egonkortasuna egongo dela adineko pertsonen aurkako tratu txarren prebalentzia tasetan. Logikoki, joera horren intzidentzia mantendu arren, populazioaren zahartze prozesuaren ondorioz, kasu horien kopuru absolutuak gora egingo du.

Hipotesi horren arabera, 65 urteko eta horik gorako 164.800 pertsona egongo dira 2021. urtean (Eustaten arabera). Babesgabetasun egoera posible batean egon daitezkeen adineko pertsonak 1.483 izango dira. Horrez gain, aurreikuspenen arabera, 2021. urterako, pertsona horien % 70 emakumeak izan daitezke.

3.4.5.4. Babesgabetasun egoeran dauden 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak

Ez da erraza pertsona helduen babesgabetasun egoeren epe motzeko prebalentziaren bilakaera aurreikustea; hala era guztiz ere, oro har, baldintza pertsonal, familia baldintza eta baldintza sozial ezberdinen ondorioz, desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duen pertsona batek tratu txarrak edo arreta arduragabea jasotzeko duen arriskua areagotzen dutela uste da. Gehienetan kontuan hartzen diren arrisku faktoreen artean aipagarriak dira hauek:

- Hirugarren pertsonekiko mendekotasun fisiko, emozional eta ekonomikoa. Mendekotasun handiagoa duten pertsonek, tratu txarrak jasateko arrisku handiagoa dute, eta adimen urritasuna zein buruko gaixotasunak dituzten pertsonak dira babesgabeenak zentzu horretan.

- Isolamendu soziala, pertsona oso egoera urrakorrean uzten baitu, batez ere tratu txarrak ematen dizkion pertsonaren mende badago bere eguneroko oinarrizko premiak asebetetzeko.

- Zaintzaileak zahartzea eta gehiegizko lan zamagatiko estresa.

- Lan ordaindua eta ordaindugabea bateratzeko premia. Lanpostu bat mantentzea eta aldi berean mendekotasuna duen pertsona bat zaintzea estres iturri handia izan daiteke, baita zaindu beharreko pertsonari tratu arduragabea emateko arrisku iturria ere.

- Gizartean estereotipo eta jarrera negatiboak egotea. Desgaitasuna duten pertsonak gutxiesten dituen gizarteak gehiegikeriak egiteko joera handiagoa izaten du.

- Desgaitasuna duten pertsonek osasun eta gizarte zerbitzuak jasotzeko oztopoak egotea.

Aipatutako faktore gehienek ez lukete bilakaera negatiborik izan behar, epe motzean eta epe ertainean behintzat. Beraz, esan daiteke maparen indarraldian zehar, pertsona helduen aurkako abusuen eta tratu txarren intzidentzia aldaketarik gabe mantenduko dela. Hipotesi hori oinarritzat hartuta, erasandako 898 pertsona egon daitezke 2021. urterako.

3.4.6 Zenbatespena oro har

Laburbilduz, 2016. urterako zehaztutako intzidentzia tasak eta proposatutako bilakaera hipotesiak kontuan hartuta, aipatutako kontingentziek erasan dezaketen populazioari dagozkion intzidentziak hauek izango lirateke:

24. taula. Babesgabetasun egoeren prebalentzia zenbatetsia Gipuzkoan. 2016/17-2021

	2016/17		2021	
	Pertsona kopurua	Tasa 100 pertsonako	Pertsona kopurua	Tasa 100 pertsonako
Babesgabetasun egoeran larrian dauden adingabekoak	1.435	% 1,142	1.631	% 1,303
Babesgabetasun egoera arinean, ertainean edo babesgabetasun arriskuan dauden adingabekoak	1.628	% 1,302	1.799	% 1,438
Indarkeria matxistaren emakume biktimak	1.302	% 0,355	1.566	% 0,424
Babesgabetasun egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak	1.399	% 0,900	1.483	% 0,900
65 urtetik beherako pertsona helduak, desgaitasuna dutenak eta babesgabetasun egoeran daudenak	912	% 0,208	898	% 0,208
Guztira	6.676	% 0,930	7.377	% 1,023

*Ehunekoetan daude adierazita adingabekoen tasak, 0 eta 18 urte bitarteko populazioa oinarritzat hartuta; emakumeen tasak ehunekotan adierazita daude, emakume kopuru osoa oinarritzat hartuta; adineko pertsonenak ehunekotan adierazita daude , 65 urteko eta gehiagoko populazioa oinarritzat hartuta; helduen populazioenak ehunekotan adierazita daude, 18 eta 64 urte bitarteko populazioa oinarritzat hartuta, eta tasa osoa ere ehunekotan adierazita dago, populazio osoa oinarritzat hartuta.

Iturria: erakundeak berak egindako taula.

Beraz, aurreikuspenen arabera, 2021. urtean, 7.400 pertsona egon daitezke babesgabetasun egoeran. Horietatik 3.400 pertsona babesgabetasun arriskuan edo egoeran dauden adingabekoak izango lirateke; 1.600 pertsona indarkeria matxistaren emakume biktimak izango lirateke; 900 pertsona tratu txarrak edo arduragabekeria jasaten duten heldu desgaituak izango lirateke; eta 1.500 pertsona, babesgabetasun egoeran dauden adinekoak.

3.5 Pobrezia, gizarte desberdintasun eta gizarte bazterkeria egoerak

Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestak emandako azken datuen arabera, 2017. urterako, testuinguru ekonomikoak errekuperazio zantzuak dituen arren, pobrezia mailak bere horretan mantendu dira. Azpiko taulan ikus daitekeen moduan, pobrezia egoera larrienak —pobrezia larriaren adierazleak neurtzen dituenak, hain zuzen ere diru sarreren mediana baliokidearen % 40eko atalasetik aurrera kalkulatzen dena— 2014ko pertsona proportzio berak erasango ditu 2017an; pobrezia erlatiboko egoeren prebalentziak (diru sarreren medianaren % 60), berriz, apur bat gora egin du.

25. taula. Pobrezia eta desberdintasun adierazle nagusien bilakaera. Gipuzkoa 2012-2017

		2012	2014	2017	Bilakaera 2017-14
EU-SILC adierazleak	Pobrezia erlatibo arriskua	% 16,8	% 15,6	% 16,4	**+0,8**
	Pobrezia larri arriskua	% 4,3	% 5,4	% 5,3	**-0,1**
	Gabezia material larria	% 5,2	% 5,2	% 6,9	**+1,7**
	Intentsitate baxuko lana	% 9,3	% 8,4	% 5,7	**-2,7**
	AROPE tasa	% 22,7	% 19,5	% 19,2	**-0,3**
	Pobrezia erlatiboa landun populazioan	% 7,0	% 6,2	% 10,2	**+4,0**
Desberdintasun adierazleak	Gini indizea	27,2	26,3	25,3	**-1,0**
	S80/S20	3,8	4,0	3,8	**-0,2**
Diru sarreren adierazleak (euro/hileko)	Errenta mediana baliokidea	1.404,2	1.420,6	1.533,3	+112,7
	Pobrezia erlatiboaren atalasea	842,5	852,4	920,0	+67,6
	Pobrezia larriaren atalasea	561,7	568,3	613,3	+45,0

Oharra: gorriz adierazita ageri dira bilakaera negatiboa izan duten adierazleak, eta urdinez adierazita ageri dira bilakaera positiboa izan dutenak.
Iturria: Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta.

Pobrezia erlatiboaren arrisku tasa ia aldatu ez den arren, etxebizitzetako diru sarreretan hobekuntza antzeman da: errenta mediana baliokidea ia % 8 areagotu da 2014 eta 2017 bitarte. Hala ere, hobekuntza hori ez da uniformea izan. Izan ere, eragin hori etxebizitzetako diru sarreren kintilen arabera aztertu denean, tarteko multzoko (3. kintila) diru sarrerak gehiago areagotu dira gainerako populazioaren diru sarrerak baino. Ondorioz, pobreziaren atalasea areagotu egin da, eta azpiko kintiletan dauden etxebizitzak atalase horren azpitik geratu dira, beren diru sarrerak ez baitira horrenbeste areagotu.

Hala ere, aldaketa oso gutxi egon dira. Izan ere, desberdintasunaren adierazle klasikoek erakusten dute desberdintasuna ez dela areagotu eta Gipuzkoako desberdintasun mailek Espainiako estatukoak baino askoz ere apalagoak izaten jarraitzen dutela. Espainia mailan, Gini koefizientea 34,1 da (Gipuzkoan, berriz, 25,3) eta S80/S20 harremana (hau da, diru sarrera baliokide altuenak dituzten pertsonen % 20k jasotako diru sarrera kopuru osoaren eta diru sarrera apalenak dituzten pertsonen % 20k jasotako diru sarrera kopuru osoaren arteko zatidura) 6,6 da Espainia mailan eta 3,8 Gipuzkoan.

Pobrezia eta gabezia materialeko egoerei dagokienez, azkenik aipatu behar da gabezia material larriaren adierazleak bilakaera bereziki negatiboa izan duela —2014an % 5,2 zen, eta 2017an, berriz, % 6,9—, baita langile pobreen tasaren adierazleak ere. Aurreko taulan zehazten den moduan, pobrezia erlatiboaren arrisku tasa % 10,2 da landun populazioan (2014an, berriz, % 6,2 zen).

Gizarte bazterketari dagokionez, 2017ko Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko 2017ko inkestak, FOESSA Fundazioak garatutako kalkulu metodologia oinarritzat hartuta, agerian utzi du populazioaren % 4,7 —15.700 etxebizitzetako ia 33.300 pertsona— bazterketa egoera larrian dagoela eta % 9,1 bazterketa egoera ertainean dagoela. Beraz, bazterketak erasandako pertsonen portzentaje osoa % 13,8 da. Gainerako populazioari dagokionez, % 29,3 gizarteratze egoera prekarioan daude, eta ia % 57 erabateko gizarteratze egoeran daude.

26. taula. Gizarte bazterketaren intzidentziaren bilakaera populazioan. Gipuzkoa 2012-2017

	2012		2014		2017	
	Tasak (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.	Tasa (%)	Kop.
Gizarteratuta	% 58,4	413.298	% 56,8	405.856	% 56,9	406.341
Gizarteratze prekarioa	% 29,7	210.335	% 29,7	212.389	% 29,3	209.071
Bazterketa ertaina	% 7,0	49.692	% 8,3	59.421	% 9,1	64.852
Bazterketa larria	% 4,8	339.50	% 5,1	36.326	% 4,7	33.273
Bazterketa guztira	*% 11,8*	*49.692*	*% 13,4*	*95.747*	*% 13,8*	*98.125*
Guztira	% 100,0	707.276	% 100,0	713.993	% 100,0	713.537

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkesta.

2014 eta 2017 bitarte ez da aldaketa handirik egon populazioak gizarteratze/gizarte bazterketaren eskalan duen banaketan. Edonola ere, aipagarria da hein oso txikian bada ere, gizarte bazterketa larriek behera egin dutela eta bazterketa egoera ertainagoek, berriz, gora egin dutela. Hala, 2014an, egoera horien prebalentzia Gipuzkoako populazioaren % 5,1 bazen, Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestaren arabera, gaur egungo prebalentzia % 4,7 da.

Gizarte bazterketa egoerek epe motzean izango duten bilakaera aurreikustea zaila izan arren, arrazoizkoa dirudi hau pentsatzeak: bazterketa egoera batzuk, hain zuzen ere etxebizitzen baldintza ekonomikoekin eta gabezia materialen baldintzekin zuzeneko zerikusia dutenak, poliki-poliki murrizten joango direla datozen urtetan zehar.

Izan ere, ekonomia eta pobrezia adierazle batzuek azken hamarkadan zehar izandako bilakaerak agerian uzten du edozein dimentsio aukeratzen dela ere, hautatutako adierazleen balio negatiboenak 2012-2014 epekoak direla, eta 2015etik aurrera nolabaiteko susperraldia dagoela, hobekuntza hori erabat homogeneoa izan ez arren.

Beraz, gizarte bazterketa larriaren tasaren bilakaera zenbatesteko orduan —FOESSAk proposatutako ikuspegia oinarritzat hartuta, arestian aipatu dugun moduan—, Gipuzkoan 2014 eta 2017 bitarte antzemandako % 7,8ko murrizpena hartu da erreferentzia gisa. Gipuzkoako pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestak adierazten duen moduan, 2014 eta 2017 bitarte, populazioaren % 5,1etik % 4,7ra murriztu zen adierazle hori. Termino konstanteetan adierazita, aurreko urtearekin alderatuta, urtez urteko % 2,74ko murrizpena dago, beraz. Zifra horiek oinarritzat hartuta, 2017tik aurrera, gizarte bazterketa larriaren tasak urte urteko % 2,7ko murrizpena izango duela aurreikusten da.

Aldez aurretik zehaztutako abiapuntua eta proposatutako bilakaera hipotesiak kontuan hartuta, 2021. urterako, gutxi gorabehera 30.5000 pertsonakoa izango da gizarte bazterketa esparruko zerbitzu eta prestazioak jaso ahal ditzakeen kolektiboa.

4. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ERABILITAKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

4.1 Lurralde antolamendua zehazteko erabilitako irizpideak

4.1.1 Lurralde antolamendurako oinarrizko irizpideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak 36.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak "*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko eginkizuna du. Horretarako, katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak zehaztuko ditu, honako ezaugarri hauen arabera: zerbitzu horien izaera, zerbitzu hori eska dezaketen pertsonen kopurua, eta ahalik eta hurbilekoenak izan daitezen bermatzeko beharra, erabiltzaileak beren ohiko gizarte ingurunean integratze aldera".*

Bestalde, lege horretako artikulu berean xedatutako moduan, antolaketa irizpideak aplikatzeko orduan, foru eta toki administrazioek zehazten dituzten banaketa geografikoak hartuko ditu aintzakotzat. Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 41. artikuluak xedatzen du foru organoek eskumena izango dutela, "g*izarte Zerbitzuen Euskal Sisteman bere eskumenekoak diren zerbitzuak antolatzeko, baita geografia hurbiltasuna eta baliabideak ahalik eta zuzenen erabili beharra gogoan harturik -printzipioak baitira-, mankomunitateak edo beste udal elkarte batzuk osatzeko sustapen lana eta bultzada emateko ere, gizarte zerbitzuak eskaintzeko".*

Eskumen hori garatzeko, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak irizpide orokorrak zehazten ditu barruti geografiko bakoitzean zentroak ezartzeko. Halaber, adierazten du erakunde arduradunek beren eskumeneko zentroen sarea beren lurraldean ezartzeko orduan kontuan hartu beharreko orientabideak direla.

Ildo horretan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapak hau xedatzen du:

a) zerbitzu motak, hurbiltasun mailaren arabera;
b) zerbitzu edo "jardun eremuak" ezartzeko populazio irizpide egokienak; eremu horiek populazio bolumenak dira, baina ez barruti edo banaketa geografikoak;
c) banaketa geografikoak edo "lurralde eremu edo eremu geografikoak".

Hiru alderdi horiek lotzen ditu taulan honetan xedatutako irizpideen arabera:

27. taula. Populazio irizpide egokienak, EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera

Hurbiltasun maila	Populazio eremua (Populazio bolumena)		Banaketa geografikoa
Zentralizatuak	400.001 – Lurralde Historikoko edo EAEko populazio osoa		Lurralde Historikoa edo EAE
Hurbiltasun apala	200.000 - 400.000		Sektorea
Hurbiltasun ertaina	50.001 - 199.999		Eskualdea
Hurbiltasun handia	Gutxienez (15.001)/Ertaina (30.001)-50.000		Eremua
Hurbiltasun oso handia	Oinarrizko hiri jardun eremua	5.000 biztanle	Udalerria edo udalerri multzoa
	Oinarrizko landa jardun eremua	3.000 biztanle	

4.1.2 Irizpide orokorren aplikazioa Gipuzkoan

Zerbitzu bakoitza Gipuzkoan ezartzeko kontuan hartutako eremu geografiko egokienak zehazteko, beharrezkoa da prozedura hau egitea: lehenik eta behin, populazio eremu bakoitzari hurbiltasun maila bat esleitzea; eta bigarren, Gipuzkoaren banaketa geografikoak egiteko proposamenean erabiliko diren irizpideak zehaztea.

Irizpide horien arabera, eta Gipuzkoako udalekin adostutako akordioaren ondoren, zerbitzu bakoitzerako, lurralde eremu jakin hauek esleitzea proposatzen da.

a) Zerbitzuei eta lurralde eremuei hurbiltasun mailak esleitzea.

Hurbiltasun mailaren arabera, EAEko Mapak korrespondentzia hauek ezartzen ditu zerbitzu moten eta lurralde eremuen artean.

28. taula. Hurbiltasun mailen eta lurralde eremuen arteko korrespondentzia

Hurbiltasun maila	Lurralde eremua
Zerbitzu zentralizatuak	Lurralde Historikoa edo Autonomia Erkidegoa
Hurbiltasun maila apaleko zerbitzuak	Gizarte zerbitzuen sektorea
Hurbiltasun maila ertaineko zerbitzuak	Administrazio eskualdea
Hurbiltasun maila handiko zerbitzuak	Gizarte zerbitzuen eremua
Hurbiltasun maila oso handiko zerbitzuak	Gizarte zerbitzuen oinarrizko eremua

b) Lurralde eremu ezberdinak zehazteko ezarritako irizpideak

Katalogoko zerbitzu bakoitza lurralde eremu orokorretara esleitzeko orduan (aurrerago Gipuzkoa lurralde eremu zehatzetan banatu ahal izateko), EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan zehaztutako irizpideak aplikatu dira.

29. taula. Katalogoko zerbitzu bakoitzari esleitutako lurralde eremua

Zerbitzuak	Lurralde eremua
1. LEHEN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK	
1.1. Informazio, balioespena, diagnostiko eta orientabide zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.2 Etxez etxeko laguntza zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.3. Gizarte eta hezkuntza esparruko esku hartze zein esku hartze psikosozialeko zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.4. Zaintzaileei laguntza emateko zerbitzua	Oinarrizko eremua
1.7. Eguneko arreta zerbitzuak	
1.7. Eguneko arreta zerbitzuak: adinekoak	Eremua
1.7. Eguneko arreta zerbitzuak: bazterketa (eguneko zentroak eta jangelak)	Eskualdea
1.8. Gaueko harrera zerbitzuak: bazterketa (aterpetxeak eta neguko aterpetxeak)	Eskualdea
1.9. Ostatu zerbitzuak	
1.9.1 Harrera etxebizitzak: (gizarte larrialdia eta indarkeria matxista)	Eremua
1.9.2. Etxebizitza babestuak: bazterketa	Eskualdea
1.9.2., 1.9.3. eta 1.9.4. Ostatu zerbitzuak: adinekoak	Eremua
2. BIGARREN MAILAKO ARRETAKO GIZARTE ZERBITZUAK	
2.2. Eguneko zerbitzuak edo zentroak	
2.2.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: adinekoak eta mendekotasuna	Eremua
2.2.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko eguneko zerbitzu edo zentroa: helduak eta desgaitasuna	Sektorea
2.2.2. Zerbitzu edo zentro okupazionala	Eremua
2.2.3. Gizarteratze premiei arreta emateko zerbitzua edo eguneko zentroa	Sektorea
2.3. Gaueko harrera zentroak	
2.3.1. Autonomia mugatuaren ondorioz sortzen diren premiei arreta emateko gaueko zentroa	Lurralde Historikoa
2.3.2. Gizarteratze premiei arreta emateko gaueko harrera zentroa	Lurralde Historikoa
2.4. Egoitza zentroak	
2.4.1 Adinekoentzako egoitza zentroak	Eremua
Egoitza zentro soziosanitarioak (*)	Sektorea
2.4.2 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako egoitza zentroak	Sektorea
2.4.2.a) Laguntzadun etxebizitzak desgaitasunen bat duten pertsonentzat	Eskualdea
2.4.3 Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak	Sektorea
2.4.3.a) Laguntzadun etxebizitzak buruko gaixotasuna duten pertsonentzat	Eskualdea
2.4.4. Babesgabetasun egoeran dauden adingabekoentzako egoitza zentroak	Eskualdea
2.4.5. (1) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak: egoera kronifikatuan dauden pertsonentzako egoitzak	Lurralde Historikoa
2.4.5. (2) Bazterketa eta marjinazio egoeran dauden pertsonentzako egoitzak zentroak: gizarteratzeko egoitza zerbitzuak	Sektorea
2.4.6. (1) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: Berehalako harrera zentroak	Lurralde Historikoa
2.4.6. (2) Indarkeria matxistaren emakume biktimentzako egoitza zentroak eta emakumeentzako bestelako egoitza zerbitzuak: epe ertain eta luzeko egonaldirako zentroak	Sektorea

(*) Bigarren mailako arreta zerbitzuen artean aipatzen da egoitza zentro soziosanitarioetako arreta, katalogoan jasota egon ez arren, ematen ari den arreta baita.

Jarraian, lurralde eremu bakoitza zehazteko irizpideak ageri dira zehaztuta.

b.1) Lurralde Historikoa

EAEko Mapan aipatzen den moduan, Lurralde Historiko osoan esparru gisa duten zerbitzuak oso gutxi izan behar dira.

b.2) Gizarte zerbitzuen sektorea

Gizarte Zerbitzuen sektorearen xedea da tamaina eta populazio bolumen handiko eremuak sortzea —betiere Lurralde Historikoa bera baino txikiagoak— , bertan zerbitzu hauek ezartzeko: a) gaur egun hiriburuetan bakarrik eman ohi direnak, Lurralde Historikoko biztanle guztientzako diren arren; b) estaldura edo intentsitate maila handia behar ez dutenak, eta beraz, zentro oso zehatzen bidez eman daitezkeenak; eta c) hein batean behintzat deszentralizatzea komeni diren zerbitzuak, Lurralde Historiko bakoitzeko populazioaren arabera. Lurralde Historiko baten barne hainbat eskualdetan banatuko dira Gizarte Zerbitzuen sektoreak. Sektore bakoitzeko populazio bolumena 200.000 eta 400.00 biztanle artekoa izango da, eta hori osatzeko gomendagarria da, ahal den heinean behintzat, osasun sistemako lehen mailako arretako eskualdeen osaketa errespetatzea, hain zuzen ere Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 36. artikuluko seigarren puntuan xedatutakoaren arabera.

b.3) Eskualdeak

Udalaz gaindiko erreferentzia lurralde unitateak dira, alorreko jarduera publikoak garatzeko sortutakoak, horien artean, gizarte zerbitzuak emateko. Ez dira populazio bolumen zehatzak esleitzen, historikoki udalaz gaindiko administrazio esparru gisa onartuta baitaude. Hala ere, eskualdearen banaketa geografikoa zehazten du EAEko Mapak, baita 50.001-199.999 biztanleko populazio bolumena ere hurbiltasun maila ertaineko zerbitzuetarako.

b.4) Gizarte zerbitzuen eremua

Hurbiltasun maila handiko zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen eremuen bidez ematen dira. Oro har, udalaz gaindiko unitateak izaten dira, hurbiltasun maila handia eskatzen duten zerbitzuen lurralde esparrua zehazteko diseinatutakoak. Horrez gain, tamaina ertaineko populazio eremuetan oinarrizko eremu ezberdinak biltzen dituzte gizarte zerbitzuen eremuek. Beraz, oinarrizko hainbat eremu mugakide elkartzean sortzen dira, era horretan, irisgarritasunaren, eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren ikuspegitik, programa jakin batzuk partekatu ahal izateko edo programa horiek emateko arduradunei laguntza teknikoa eman ahal izateko.

b.5) Gizarte Zerbitzuen oinarrizko eremuak

Oinarrizko gizarte zerbitzuen populazio eremua osatzen dute Oinarrizko Eremuek, baita Gizarte Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arreta zerbitzu jakin batzuetarako lurralde eremua ere. Udalek zehazten dute oinarrizko eremua, esleituta dituzten eskumenen arabera.

4.2. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Maparen lurralde egituraketa proposamena

Mapa honek oinarrizko lurralde egitura hau proposatzen du.

- **Gizarte zerbitzuen sektorea**

1. mapan islatzen den moduan, bi sektoretan banatzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoa:

- **EKIALDEKO sektorea**. Horren barne daude Bidasoa, Buruntzaldea, Donostia eta Oarsoaldea eskualdeak. Gipuzkoako hiri dentsitate handieneko eremua da, 408.339 biztanlerekin.
- **MENDEBALDEKO sektorea**. Horren barne daude Urola Kosta, Debabarrena, Debagoiena, Goierri eta Tolosaldea eskualdeak, eta 310.943 biztanle ditu guztira.

Mapa 1. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Sektoreak

Eskualdeak

Ohiko banaketaren arabera, Gipuzkoak zazpi eskualde ditu: Bidasoa, Donostialdea, Urola Kosta, Debabarrena, Debagoiena, Goierri eta Tolosaldea.

2. mapa. Gipuzkoako eskualdeak Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Mapan

30 mapa. Gipuzkoako eskualdeak Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Mapan

Eskualdea	Biztanleak
BIDASOA	78.904
DONOSTIA	329.435
UROLA KOSTA	75.334
DEBABARRENA	55.747
DEBAGOIENA	62.679
GOIERRI	69.488
TOLOSALDEA	47.695

Taulan zehazten den moduan, 50.001 eta 199.999 biztanle bitarteko populazio eremua nabarmen gainditzen du Donostialdeko biztanle kopuruak, baita gainerako eskualdeetako batez besteko populazio bolumena ere. Hori dela eta, banaketa geografiko horretako defizitak zehazteko orduan, 2015-2017 Mapan, hiru azpieskualdetan banatzen zen Donostialdeko eskualdea:

31. taula. Donostialdeko azpieskualdeak 2015-2017 Mapan

DONOSTIALDEKO AZPIESKUALDEAK	Biztanleak
DONOSTIA	186.370
OARSOALDEA	71.759
BURUNTZALDEA	71.306

2015-2017 Mapan, defizitak zehazteko bakarrik hartzen zen kontuan “eskualde” banaketa hori. Mapa hau osatzeko orduan ikusi zen indarrean zegoen eskualde banaketa ez zela egokiena plangintza premiei erantzuteko, batez ere populazio desoreka handia baitzegoen.

2/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 33. artikuluan xedatzen du Foru Aldundiek eta toki erakundeek badutela bakoitzak bere planifikazioa egiteko aukera, baina Autonomia Erkidegorako zehazturik dagoena errespetatuz. Beste alde batetik, alorreko hainbat jarduera publiko garatzeko sortutako udalaz gaindiko erreferentziako lurralde unitate gisa definitzen ditu eskualdeak EAEko Mapak, besteak beste gizarte zerbitzuak emateko. Banaketa geografikoa egiteko orduan, adierazten du orientabideak edo gomendioak besterik ez direla, erakunde bakoitzak autonomia baitu banaketa geografiko horiek egiteko.

Autonomia hori erabiliz eta **foru eskumeneko baliabideen plangintza esparruan bakarrik**, banaketa berri bat egin da mapa honetarako, era horretan, ohiko 7 eskualdeen arteko populazio desoreka murrizteko. Hala, eskualde bihurtu dira Donostialdeko azpieskualdeak. “Donostialdea” izena ezabatu egin da eskualde banaketatik, eta horren ordez 3 eskualde zehaztu dira: Buruntzaldea, Donostia eta Oarsoaldea.

Populazio esparruei begiratuta, EAEko Mapan xedatutakoaren arabera, zerbitzuak ezartzeko esparru egokienak zehazten dira Katalogoko hurbiltasun maila ertainetarako eskualdeko banaketa geografikoan. Eskualde horien populazio eremua 50.001-199.999 biztanle bitartekoa da.

EAEko Mapan zehaztutako populazio eremu hori errespetatzen du banaketa berriak. Hala, Donostialdeko eskualdeak 329.435 biztanle zituen (gainerako eskualdeetako populazioa baino lau bider handiagoa); baina eskualde banaketa berriaren arabera, alde hori nabarmen murrizten da (Donostiak 186.370 biztanle ditu).

Lurralde banaketa berrian, Gipuzkoa bederatzi eskualdetan banatzen da: Bidasoa, Buruntzaldea, Debabarrena, Debagoiena, Donostia, Goierri, Oarsoaldea, Tolosaldea eta Urola Kosta.

3. mapa. Gipuzkoako gizarte zerbitzuen eskualdeak (2018-2021 Mapa)

Populazioaren eskualdekako banaketa horrelakoa da:

32. taula. Gizarte zerbitzuen eskualdeak eta biztanleak

ESKUALDEAK	Biztanleak
Bidasoa	78.904
Buruntzaldea	71.306
Donostia	186.370
Debabarrena	55.747
Debagoiena	62.679
Goierri	69.488
Oarsoaldea	71.759
Tolosaldea	75.334
Urola Kosta	75.334

- **Gizarte zerbitzuen eremua**

Eremuak zehazteko orduan, 2. taulan zehaztutako irizpideak aplikatu dira, hain zuzen ere Gipuzkoa eskualdeka banatzeko ezarritakoak.

EAEko Mapak xedatutakoaren arabera, hurbiltasun maila handiko zerbitzuak Gizarte Zerbitzuen Eremuen bidez emango dira. Oro har, udalaz gaindiko unitateak izaten dira, hurbiltasun maila handia eskatzen duten zerbitzuen lurralde esparrua zehazteko diseinatutakoak. Horrez gain, oinarrizko eremu ezberdinak tamaina ertaineko populazio eremuetan biltzen dituzte gizarte zerbitzuen eremuek.

Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Mapan, Gizarte Zerbitzuen 5 eremu Donostian kokatuta zeuden. Kontuan hartu behar da udalak berak hartutako antolakuntza erabaki baten ondorioa dela hori, eta udalerriaren premien arabera, alda litekeela. Hori guztia kontuan hartuz, mapa honetarako, Donostiako banaketa ezabatu egin da foru eskumeneko zerbitzu eta prestazioen esparruan. Ondorioz, 13 eremu zehaztu dira:

33. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen eremuak eta biztanle kopurua

Eremuak	Biztanleak
Bergaraldea	17.973
Bidasoaldea	78.904
Buruntzaldea	71.306
Deba Erdia	31.318
Deba Kosta	24.429
Donostia	186.370
Iraurgi	31.482
Leintz Ibarra	44.706
Oarsoaldea	71.759
Oria Garaia	43.807
Tolosaldea	47.695
Urola Garaia	25.681
Urola Kostaldea	43.852

Iturria: Biztanleen udal errolda, 2017ko urtarrilaren 1ean, INE.

Bidasoa, Oarsoaldea, Donostia eta Buruntzaldea eremuei dagokienez, 50.000 biztanleko muga gainditzen dute, 150 km² baino azalera txikiagoa dute eta populazio dentsitate handia dute. Hori guztia dela eta, eremu bakar batean elkartzea egokia izan daitekeela uste da.

Mapa honetan, banaketa hori erabiliko da zerbitzu hauetarako:

1.- Adineko pertsonentzako eguneko zentroa (2.2.1 1. mota-Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua)

2.- Zerbitzu edo zentro okupazionalak (2.2.2.- Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua)

3.- Adineko pertsonentzako egoitza zentroak (2.4.1.- Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua)

4. mapa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen eremuak

34. taula. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen eremuak eta eremu bakoitzeko udalerriak

EREMUAK	UDALERRIAK
BIDASOA	HONDARRIBIA
	IRUN
OARSOALDEA	ERRENTERIA
	LEZO
	OIARTZUN
	PASAIA
DONOSTIA	DONOSTIA/SAN SEBASTIAN
BURUNTZALDEA	ANDOAIN
	ASTIGARRAGA
	HERNANI
	LASARTE-ORIA
	URNIETA
	USURBIL
UROLA KOSTALDEA	AIA
	GETARIA
	ORIO
	ZARAUTZ
	ZUMAIA
IRAURGI	AIZARNAZABAL
	AZKOITIA
	AZPEITIA
	BEIZAMA

EREMUAK	UDALERRIAK
DEBAGOIENA	ANTZUOLA
	BERGARA
	ELGETA
	ARETXABALETA
	ARRASATE
	ESKORIATZA
	LEINTZ-GATZAGA
	OÑATI
UROLA GARAIA	EZKIO-ITSASO
	LEGAZPI
	URRETXU
	ZUMARRAGA
ORIA GARAIA	ALTZAGA
	ARAMA
	ATAUN
	BEASAIN
	GABIRIA
	GAINTZA
	IDIAZABAL
	ITSASONDO
	LAZKAO
	LEGORRETA

EREMUAK	UDALERRIAK
TOLOSALDEA	ABALTZISKETA
	ADUNA
	ALBIZTUR
	ALEGIA
	ALKIZA
	ALTZO
	AMEZKETA
	ANOETA
	ASTEASU
	BALIARRAIN
	BELAUNTZA
	BERASTEGI
	BERROBI
	BIDANIA-GOIATZ
	ELDUAIN
	GAZTELU
	HERNIALDE
	IBARRA
	IKAZTEGIETA
	IRURA
	LARRAUL
	LEABURU

	ERREZIL ZESTOA
DEBA KOSTA	DEBA ELGOIBAR MENDARO MUTRIKU
DEBA ERDIA	EIBAR SORALUZE

	MUTILOA OLABERRIA ORDIZIA ORMAIZTEGI SEGURA ZALDIBIA ZEGAMA ZERAIN

	LIZARTZA ORENDAIN OREXA TOLOSA VILLABONA ZIZURKIL

- **Gizarte Zerbitzuen oinarrizko eremua**

2015-2017 Mapan oinarrizko eremuen antolaketa proposamen bat egin zen. Mapa honetan ez da zonakatze hori erabiltzen. Aitzitik, hauxe xedatu da: udalerriek zehatz ditzatela gizarte zerbitzuen oinarrizko eremuak, beren antolakuntzaren arabera.

5 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN SARE PUBLIKOKO DEFIZITEN KALKULUA

5.1 Bigarren mailako sarearen plangintza eta antolakuntza. Metodologia

Gipuzkoa osoan, 2021. urterako, lurralde osorako babes maila homogeneoarekin gizarte zerbitzu sistema unibertsal bat lortzeko bidean aurrera egitea da helburua, baita zerbitzu zein prestazioak jasotzeko eskubide subjektiboa bermatzea eta arretarako erkidegoko eredua garatzea ere.

EAEko 2015-2017 Maparen esparrua gainditu ondoren, kontuan hartuta baliabide askoren kasuan, EAEko Mapan xedatutako gutxieneko estaldurak (edo intentsitateak) dagoeneko bermatuta daudela Gipuzkoa mailan, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, hobekuntzak ezartzea komeni dela uste da, era horretan, zerbitzu bakoitzerako estaldura maila egokiena lortzeko.

Eskariaren eta horren bilakaeraren azterketan oinarritutako metodologia berri bat erabili da defizitak kalkulatzeko orduan.

Horretarako, zerbitzu bakoitzean eskuragarri zengoen informazio guztiaren artean egokiena erabili da eskariaren eta horren eremukako banaketa kalkulatzeko, baita eskariaren bilakaera kalkulatzeko ere. Hala, mendekotasuna duten adineko pertsonen esparruan, 80 urtetik gorako populazioaren bilakaera erabili da erreferentzia gisa; desgaitasuna duten pertsonen esparruan, 2017ko abenduko erabiltzaileen ezaugarriak eta 2014 eta 2017 bitarteko bilakaera; buruko gaixotasuna duten pertsonen esparruan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuak erabili dira; gizarteratze prozesuan dauden pertsonen, indarkeria matxistaren emakume biktimen eta adingabekoen kasuan, dagozkion arreta zerbitzuek emandako datuak erabili dira, beharrezkoa denean eskaria esparruka banatuz, hain zuzen ere erreferentzia populazioaren banaketaren arabera.

5.2 Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonak

Mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen esparruan, 2017ko abenduaren 31ko datuak kontuan hartuz, gizarte zerbitzuen erabiltzaileak honela banatzen dira 65 eta 79 urte bitarteko eta 80 urtetik gorako populazioaren artean.

35. taula. Mendekotasunari arreta emateko zerbitzuen erabiltzaileen banaketa, adin tarteen arabera

	65-79	≥80	%65-79	%≥80
Populazioa	**105.196**	**50.254**	**%67,7**	**%32,3**
2. edo 3. mendekotasun maila	2.825	10.933	% 20,5	% 79,5
Ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren onuradunak	793	4.306	% 15,6	% 84,4
Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren onuradunak	2.219	5.324	% 29,4	% 70,6
Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren onuradunak	24	181	% 11,7	% 88,3
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak	464	1.553	% 23,0	% 77,0
Egoitza zentroen erabiltzaileak	907	3.479	% 20,7	% 79,3
Eguneko zentroen erabiltzaileak	323	1.165	% 21,7	% 78,3

Taula honetan ikusten den moduan, mendekotasunari arreta emateko zerbitzuen erabiltzaileen % 80 inguru 80 urtetik gorako adin tartean dago. Ondorioz, mendekotasunaren arretarako zerbitzuen erabiltzaileen bilakaera kuantifikatu ahal izateko, gure ustez egokiena da 80 urtetik gorako populazioa erabiltzea adierazle gisa, 65 urtetik gorako populazio osoaren ordez.

5.2.1. Adineko pertsonentzako egoitza zentroetako plaza premien azterketa, eremuka

Azpiko taulan zehaztu dira egoitza zentroetako plazen eskariaren bilakaera eremu eta ekitaldi bakoitzean, baita eskari horren eta 80 urtetik gorako populazioaren arteko zatidura ere. Eremu jakin bateko egoitzetako *erabiltzaile kopuruak* gehi zerbitzu *horretako itxarote zerrendak* osatzen dute eskaria.

36. taula. Egoitza zentroetako plazen eskariaren bilakaera, eremuka

	2014				2015				2016				2017				Batezbestekoa 14-17	
Eremua	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	o/Pop.	Eremua-Gip
Bidasoa	407	92	499	10,9	417	74	491	10,3	407	82	489	9,7	415	91	506	9,8	10,2	-0,5
Oarsoalde	476	83	559	12,8	469	106	575	12,6	477	110	587	12,5	485	129	614	12,8	12,7	2,0
Donostia	1296	192	1488	10,7	1282	177	1459	10,3	1296	252	1548	10,8	1296	231	1527	10,4	10,6	-0,1
Buruntzal	325	92	417	11,9	340	100	440	11,9	356	112	468	12,2	374	115	489	12,4	12,1	1,4
Urola kost	172	32	204	9,1	173	31	204	8,9	172	38	210	8,9	180	28	208	8,6	8,9	-1,8
Iraurgi	180	18	198	10,6	183	22	205	10,6	194	22	216	11,0	195	28	223	11,1	10,8	0,1
Deba kost	132	8	140	8,7	132	18	150	9,0	136	28	164	9,6	141	24	165	9,4	9,2	-1,5
Deba erdi	261	15	276	10,3	264	35	299	10,8	263	42	305	11,0	262	35	297	10,4	10,6	-0,1
Debagoie	426	68	494	11,2	444	69	513	11,0	445	79	524	11,1	453	54	507	10,8	11,0	0,3
Urola gara	165	29	194	10,3	165	35	200	9,9	162	58	220	10,7	161	44	205	9,8	10,2	-0,5
Oria garai	231	26	257	9,4	229	29	258	9,2	242	23	265	9,2	245	32	277	9,4	9,3	-1,4
Tolosalde	239	37	276	10,1	231	49	280	10,0	237	47	284	9,9	244	68	312	10,6	10,2	-0,5
Guztira	**4.310**	**692**	**5.002**	**10,8**	**4.329**	**745**	**5.074**	**10,6**	**4.387**	**893**	**5.280**	**10,8**	**4.451**	**879**	**5.330**	**10,6**	**10,7**	

Taulan zehaztutako informazioa kontuan hartuta, bi datu behar bezala egiaztatzen dira:

- Lotura estua dagoela eskariaren eta 80 urtetik gorako populazioaren bilakaeren artean.

- Epe horretan zehar, nahiko modu etengabean, erabiltzaileen kopuruaren indizea desbideratu dela, 80 urtetik gorako populazioa erreferentzia gisa hartuta.

5.2.2. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plaza premien azterketa, eremuka

Eguneko zentroen eskariaren bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu korrelazioa dagoela eskariaren eta 80 urtetik gorako populazioaren artean, eta desbideratzea dagoela eremuen araberako tasen batezbestekoarekiko. Hala, 80 urtetik gorako 10.000 pertsona bakoitzeko eskari tasa 3,3 da Gipuzkoa mailan. Tasa hori 4tik gorakoa da Oarsoaldea (4,6), Buruntzaldea (4,9), Urola Garaia (5,0) eta Urola Kostaldea (4,1) eskualdeetan; Bidasoa (2,2), Deba Erdia (1,7) eta Tolosaldea (2,7) eskualdeetan, berriz, 3tik beherakoa da tasa hori.

37.-. taula. Eguneko zentroetako plazen eskariaren bilakaera, eremuka

	2014				2015				2016				2017				tezbestekoa 14-	
	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	o/Pop.	Eremua- Gip
Bidasoa	104	11	115	2,5	96	12	108	2,3	92	11	103	2,0	99	13	112	2,2	2,2	-1,1
Oarsoaldea	174	34	208	4,8	179	31	210	4,6	186	29	215	4,6	192	15	207	4,3	4,6	1,2
Donostia	367	84	451	3,3	364	43	407	2,9	367	38	405	2,8	366	11	377	2,6	2,9	-0,4
Buruntzaldea	141	33	174	4,9	152	36	188	5,1	161	27	188	4,9	167	15	182	4,6	4,9	1,5
Urola kostaldea	80	2	82	3,7	90	7	97	4,2	94	11	105	4,5	88	4	92	3,8	4,0	0,7
Iraurgi	68	13	81	4,3	63	4	67	3,5	65	5	70	3,6	71	12	83	4,1	3,9	0,5
Deba kosta	44	3	47	2,9	51	3	54	3,2	50	0	50	2,9	55	5	60	3,4	3,1	-0,2
Deba erdia	31	12	43	1,6	32	9	41	1,5	40	14	54	1,9	42	10	52	1,8	1,7	-1,6
Debagoiena	112	17	129	3,1	120	23	143	3,4	125	60	185	4,0	128	26	154	3,5	3,5	0,2
Urola garaia	87	8	95	5,0	86	17	103	5,1	85	17	102	5,0	88	12	100	4,8	5,0	1,6
Oria garaia	90	2	92	3,4	91	6	97	3,5	102	6	108	3,8	98	6	104	3,5	3,5	0,2
Tolosaldea	69	4	73	2,7	71	0	71	2,5	73	3	76	2,6	84	6	90	3,1	2,7	-0,6
Guztira	**1.367**	**223**	**1.590**	**3,4**	**1.395**	**191**	**1.586**	**3,3**	**1.440**	**221**	**1.661**	**3,4**	**1.478**	**135**	**1.613**	**3,2**	**3,3**	

5.2.3 80 urtetik gorako populazioaren proiekzioa

Egiaztatu den moduan, mendekotasunari arreta emateko zerbitzuen eskariak zuzeneko korrelazioa du 80 urtetik gorako populazioaren bilakaerarekin. Hori kontuan hartuta, Eustatek Gipuzkoako populazioaren inguruan egindako proiekzioa hartu dugu oinarritzat.

2011-2017 epean, 80 urtetik gorako populazioa nabarmen areagotu zen, % 3,6 hain zuzen ere. 2018-2020 hirurtekoan berriz, populazio hori egonkortu egingo da, Gerra Zibileko (1936-1939) eta gerraosteko jaiotza tasa apalaren ondorioz.

38. taula. Gipuzkoako 80 urtetik gorako populazioa. Datu historikoak eta proiekzioa

Urtea	"80 urtetik gorakoak"	"Bariazio tasa"
2011	41.018	4,6
2012	42.688	4,1
2013	44.473	4,2
2014	46.322	4,2
2015	47.926	3,5
2016	49.006	2,3
2017	50.254	2,5
2018	50.700	0,9
2019	50.900	0,4
2020	50.900	0,0
2021	51.800	1,8
2022	52.400	1,2
2023	53.100	1,3
2024	54.900	3,4
2025	56.200	2,4
2026	58.500	4,1
2027	60.400	3,2
2028	62.200	3,0
2029	64.400	3,5
2030	66.300	3,0
2031	67.900	2,4

2011-2017: batezbestekoa 3,6
2018-2020: batezbestekoa 0,4
2021-2023: batezbestekoa 1,4
2024-2031: batezbestekoa 3,1

4. grafikoa. 80 urtetik gorako populazioaren urtekako bilakaera



5. grafikoa. 80 urtetik gorako populazioaren urteko bariazio tasa



Iturria: 2017 arte, INEren datuak. 2018tik aurrera, Eustaten proiekzioak.

5.2.4. 2018-2021 eperako defizita zehaztea

Jarraian, baliabide bakoitza aztertzen da eta esparru bakoitzerako aurreikusitako defizitak zehazten dira.

5.2.4.1. Adineko pertsonentzako egoitza zentroetako plazak, eremuka

Plazen defizita kalkulatzeko orduan, ez dira behin-behineko egonaldiak kontuan hartzen. Izan ere, erabilitako plaza gehienak ez dira behin betiko moduan ituntzen, behin-behinean baizik, urte sasoiaren arabera aldakorrak diren premiei erantzuteko.

Adineko pertsonentzako egoitza zentroetako plazen eskaria eta 2021. urterako egindako populazio proiekzioa kontuan hartuz, jarraian ageri den taula osatu da. Bertan, 2017rako eta 2021rako plaza defizita zehazten da. Gure ustez, aurreikusitako eskariaren % 10 itxarote zerrenda teknikoa da. Gainerako % 90ean 2017ko abenduaren 31n itundutako plazak aplikatzen dira (4.496 plaza), eta hori oinarritzat hartuta, 301 plazako defizita dago 2017. urtean. 2017ko 5.330 plazako eskariari % 3,1eko areagotzea aplikatuz, 5.494 plazako eskaria kalkulatzen da 2021. urterako. Kopuru horren % 90 dira 4.945 plaza eta arestian aipatutako 4.496 plaza aplikatuz, Gipuzkoa mailan 449 plazako defizita kalkulatu da 2021. urterako.

39. taula.- Adineko pertsonentzako egoitza zentroetako plaza premiak, eremuka

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera				
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	Defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+
Bidasoa	506	455	434	21	21	522	469	434	35	35
Oarsoaldea	614	553	357	196	196	633	570	357	213	213
Donostia	1.527	1.374	1.431	-57		1.574	1.417	1.431	-14	
Buruntzaldea	489	440	263	177	177	504	454	263	191	191
Urola Kostaldea	208	187	216	-29		214	193	216	-23	
Iraurgi	223	201	204	-3		230	207	204	3	3
Deba kosta	165	149	96	53	53	170	153	96	57	57
Deba erdia	297	267	286	-19		306	276	286	-10	
Debagoiena	507	457	461	-5	41	523	470	461	9	42
Urola garaia	205	185	144	41	41	211	190	144	46	46
Oria Garaia	277	249	265	-16		286	257	265	-8	
Tolosaldea	312	281	339	-58		322	289	339	-50	
Guztira	**5.330**	**4.797**	**4.496**	**301**	**525**	**5.494**	**4.945**	**4.496**	**449**	**587**

2021. urterako aurreikusitako 449 plazako defizit horretan, 213 plaza Oarsoaldean kokatzen dira, eta 191 plaza Buruntzaldean. Alde handiarekin askoz ere defizit apalagoa dute eremu hauek: Deba Kostak, 57 plaza eta Urola Garaiak, 46 plaza. Defizit apalena duten eremuak hauek dira: Bidasoa, 35 plazarekin, eta Iraurgi, 3 plazarekin.

2018ko urriaren 1ean 59 plaza berri itundu dira. Beraz, 2021. urterako aurreikusitako defizita **390** plazakoa da.

59 plaza horietatik 18 Oarsoaldean itundu dira, defizit handiena duen eremuan, alegia.

5.2.4.2. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako lanegunetarako plazak, eremuka

2017an, eguneko zentroetako plazen eskaintzak eskariaren % 95,4 asebetetzen zuen. Egoitza zentroetarako plazen kasuan helburu gisa proposatutako portzentajea (% 90) gainditzen zuen tasa horrek. Abiapuntuko egoera kontuan hartuz, eskaintzak eskariaren % 95 asebetetzea ezarri da helburu gisa 2021. urterako. Horrek esan nahi du 1.579 plazakoa dela asebete beharreko eskaria.

Defizit osoa 39 plazakoa izango da, baina lurralde banaketaren ondorioz, 91 plazakoa da azkenean. Gipuzkoa mailan, eskaria nahiko ongi asebetetzen dela jotzen da. Hala ere, lurralde oreka berrezarri beharra dago.

40. taula-. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako lanegunetarako plazen premia, eremuka

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera				
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	Defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+
Bidasoa	112	106	108	-2		115	110	108	2	2
Oarsoaldea	207	197	177	20	20	213	203	177	26	26
Donostia	377	358	397	-39		389	369	397	-28	
Buruntzaldea	182	173	159	14	14	188	178	159	19	19
Urola Kostaldea	92	87	99	-12		95	90	99	-9	
Iraurgi	83	79	83	-4		86	81	83	-2	
Deba kosta	60	57	55	2	2	62	59	55	4	4
Deba erdia	52	49	42	7	7	54	51	42	9	9
Debagoiena	154	146	133	13	13	159	151	133	18	18
Urola garaia	100	95	86	9	9	103	98	86	12	12
Oria Garaia	104	99	100	-1		107	102	100	2	2
Tolosaldea	90	86	101	-16		93	88	101	-13	
Guztira	**1.613**	**1.532**	**1.540**	**-8**	**65**	**1.663**	**1.579**	**1.540**	**39**	**91**

Eguneko zentroetan lanegunetarako plazen defizita eremu hauetan antzeman da: Oarsoaldean (26), Buruntzaldean (19), Debagoienan (18), Urola Garaian (12) eta Deba Erdian (9).

2018ko urriaren 1ean 17 plaza berri itundu dira. Beraz, 2021. urterako aurreikusitako defizita **22** plazakoa da. Plaza horietatik 2 Bidasoan itundu dira, era horretan, defizita zuzenduz; 10 plaza Deba Kostan itundu dira, era horretan, 6 plazako superabita izaterako pasako da. Halaber, Deba Erdian 5 plaza itundu dira, era horretan, eremu horretarako 2021erako aurreikusitako defizita zuzenduz.

5.2.4.3. Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako jaiegun eta asteburuetarako plazak, eremuka

Eguneko zentroetan jaiegun eta asteburuetarako itxarote zerrendarik ez dagoenez, ezin izan dugu eskaria zehaztu. Beraz, plazen defizita datu horrekin zehaztu ezin dugunez, zeharkako beste adierazle batzuk erabili ditugu.

Beste alde batetik, 80 urtetik gorako populazioaren estaldura tasei dagokienez, sakabanatze handia antzeman da. Adibide gisa, Urola Garaiak 80 urtetik gorako 25.681 biztanle ditu eta 73 plaza ditu. Oarsoaldeak, berriz, 80 urtetik gorako 71.759 biztanle ditu (Urola Garaiaren ia hirukoitza) eta 56 plaza besterik ez ditu.

41. taula.- Adineko pertsonentzako eguneko zentroetako jaiegun eta asteburuetarako plazen premia, eremuka

	Okupazio % data honetan: 17/11/30	+defizita 17/11/30	2021erako aurreikusitako egoera			
			%40 / %95 Dem. LEZ	Eskaintza	Defizita	+defizita
Eremua						
Bidasoa	72%		44	76	-32	
Oarsoaldea	80%	23	81	56	25	25
Donostia	84%	23	148	120	28	28
Buruntzaldea	74%	7	71	62	9	9
Urola kostaldea	47%		36	53	-17	
Iraurgi	98%		33	42	-9	
Deba kosta		23	24	0	24	24
Deba erdia	77%		20	28	-8	
Debagoiena	81%	20	60	43	17	21
Urola garaia	78%		39	73	-34	
Oria garaia	95%	3	41	37	4	4
Tolosaldea	89%		35	37	-2	
Guztira	**77%**	**98**	**632**	**627**	**5**	**110**

Eguneko zentroetan asteburuetarako eta jaiegunetarako eskariari buruzko zuzeneko erreferentziarik ez dagoenez, Gipuzkoa osorako 2017ko estaldura aplikatu diogu eremu bakoitzari 2021. urterako. Hala, egiaztatzen da 2017. urtean, eguneko zentroetan laneguneko plazen % 40 eskaintzen zirela jaiegun eta asteburuetarako. Hala, portzentaje hori aplikatu zaio laneguneko plazen eskariaren % 95ari. Era horretan, lurralde estaldura ezberdinagatik bakarrik sortzen dira defizitak eremuka.

5.3 Esparru soziosanitarioa

5.3.1 Baliabide soziosanitarioetako plazen eskariaren azterketa

Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak 2017-2020 azterlanean adierazten da adinak gora egiten duen heinean, gaixotasun kroniko bat ala gehiago edukitzeko prebalentziak gora egiten dutela, eta 75 urtetik gora, Euskadiko populazioaren % 90ek gaixotasun kroniko bat duela gutxienez. Bilakaera demografikoa kontuan hartuta, 2018-2021 laurtekoan baliabide horren eskaria areagotuko dela aurreikusi da.

Baliabide horren eskaria zehazteko orduan, Departamentuko arreta zerbitzuek emandako arreta premien aurreikuspena hartu da oinarritzat: adineko pertsonentzako egoitzetan itundutako plazen % 3 izango litzateke beharrezko eskaria; hau da, **135** plaza.

5.3.2 2021erako defizita zehaztea

Kontuan hartuta 2021. urterako adineko egoitzetan aurreikusitako plaza itunduen % 3 dela zentro soziosanitarioetako plaza eskaria, defizita **35** plazakoa da.

42. taula.- Zentro soziosanitarioetako plazen premia, sektoreka

Eremua	Egoera 2017-12-31n			2021erako aurreikusitako egoera		
	Adinekoentzako egoitzetako plazak	GZEU%	Beharrezko plaza kopurua	Eskaintza	Beharrezko plaza kopurua	Defizita
Ekialdeko sektorea	2.485	3%	75	73	75	2
Mendebaldeko sektorea	2.011	3%	60	27	60	33
Guztira	**4.496**		**135**	**100**	**135**	**35**

Egun dagoen lurralde desoreka azpimarragarria da, baina Eibarreko ospitale berriko solairu soziosanitarioa irekitzen denean, desoreka hori zuzentzea espero da.

5.4 Desgaitasuna duten pertsonak

5.4.1 Desgaitasuna duten pertsonentzako plazen eskariaren azterketa

Desgaitasuna duten pertsonei arreta emateko orduan, hiru foru baliabide motatan eskaintzen zaizkie plazak: egoitza zentroetan, laguntzadun etxebizitzetan eta eguneko zentroetan. Horrez gain, zentro eta zerbitzu okupazionalak ere badaude, baina horiek modu bereizian aztertuko dira, buruko gaixotasunen esparrua ere barne hartzen baitute.

Egoitza zentroetako eta eguneko zentroetako zerbitzuak sektore mailan eskaintzen dira. Beste alde batetik, laguntzadun etxebizitzetako plaza bidez ematen diren zerbitzuak eskualdeka eskaintzen dira.

5.4.1.1. Egoitza zentroak

Azpiko taulan zehazten da desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako plazen eskariaren bilakaera 2014-2017 eperako, sektoreka eta eskualdeka.

43. taula. Egoitza zentroetako plazen eskariaren bilakaera, sektoreka eta eskualdeka

	2014				2015				2016				2017				tezbestekoa 14-	
Eremua	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	o/Pop.	Eremua-Gip
Ekialdea	246	31	277	10,9	257	26	283	11,2	257	29	286	11,4	265	27	292	11,7	11,3	1,1
Mendebaldea	147	19	166	8,7	153	9	162	8,5	156	12	168	8,9	154	10	164	8,7	8,7	-1,5
Guztira	**393**	**50**	**443**	**10,0**	**410**	**35**	**445**	**10,0**	**413**	**41**	**454**	**10,3**	**419**	**37**	**456**	**10,4**	**10,2**	

Lau urte horietan, 450 plaza ingurukoa izan da eskaria, eta apur bat gora egin du.

5.4.1.2 Etxebizitzak

18 eta 64 urte bitarteko 10.000 biztanle bakoitzeko eskari tasaren bilakaera hau izan da: 2014. urtean 9,7 zen tasa hori, eta 2017an, berriz, 10,7. Aipagarria da eskualdeka alde handiak daudela. Donostian 21,1 da tasa, Gipuzkoako batez besteko tasaren (10,2) bikoitza. Jarraian, Tolosaldea dago, 15,2 tasarekin. Muturraren beste aldean daude Debabarrena, 1,9rekin; Oarsoaldea, 4,2rekin eta Bidasoa, 4,5ekin.

44. taula.- Etxebizitzetako plazen eskariaren bilakaera, eskualdeka

Eremua	2014 Erabiltzaileak 1	2014 Itxarote zerrenda 2	2014 Eskaria 3=1+2	2014 o/Pop. 4=3/ Pop.	2015 Erabiltzaileak 1	2015 Itxarote zerrenda 2	2015 Eskaria 3=1+2	2015 o/Pop. 4=3/ Pop.	2016 Erabiltzaileak 1	2016 Itxarote zerrenda 2	2016 Eskaria 3=1+2	2016 o/Pop. 4=3/ Pop.	2017 Erabiltzaileak 1	2017 Itxarote zerrenda 2	2017 Eskaria 3=1+2	2017 o/Pop. 4=3/ Pop.	Batezbestekoa 14-17 o/Pop.	Batezbestekoa 14-17 Eremua-Gip
Bidasoa	13	8	21	4,3	13	7	20	4,1	13	8	21	4,3	13	12	25	5,1	5,0	-5,7
Oarsoaldea	13	1	14	3,2	12	5	17	3,9	13	8	21	4,8	13	9	22	5,0	4,0	-6,0
Donostia	202	35	237	20,4	208	33	241	20,9	215	35	250	21,7	221	25	246	21,5	21,0	10,9
Buruntzaldea	24	3	27	6,1	25	4	29	6,6	27	6	33	7,5	28	6	34	7,8	7,0	-3,2
Debabarrena	5	1	6	1,8	6	1	7	2,1	6	0	6	1,8	6	0	6	1,8	2,0	-8,3
Debagoiena	19	9	28	7,2	20	9	29	7,6	24	2	26	6,9	24	4	28	7,5	7,0	-2,9
Goierri	21	2	23	5,4	22	4	26	6,2	23	5	28	6,7	26	7	33	7,9	7,0	-3,7
Tolosaldea	40	3	43	14,8	39	3	42	14,5	41	4	45	15,6	44	2	46	16,0	15,0	5,0
Urola kosta	26	4	30	6,5	27	4	31	6,7	27	2	29	6,3	27	3	30	6,5	7,0	-3,7
Guztira	**363**	**66**	**429**	**9,7**	**372**	**70**	**442**	**10,0**	**389**	**70**	**459**	**10,4**	**402**	**68**	**470**	**10,7**	**10,2**	

5.4.1.3 Eguneko zentroak

Eguneko zentroetan ere hazkunde handia egon da: 18 eta 64 urte bitarteko 10.000 biztanleko plaza tasa 14,8 zen 2014an, eta 16,2 2017an.

Aurreko bi baliabideetan bezala, aldeak nabariak dira eskualdeka.

45. taula.- Eguneko zentroetako plazen eskariaren bilakaera, sektoreka eta eskualdeka

Eremua	2014 Erabiltzaileak 1	2014 Itxarote zerrenda 2	2014 Eskaria 3=1+2	2014 o/Pop. 4=3/ Pop.	2015 Erabiltzaileak 1	2015 Itxarote zerrenda 2	2015 Eskaria 3=1+2	2015 o/Pop. 4=3/ Pop.	2016 Erabiltzaileak 1	2016 Itxarote zerrenda 2	2016 Eskaria 3=1+2	2016 o/Pop. 4=3/ Pop.	2017 Erabiltzaileak 1	2017 Itxarote zerrenda 2	2017 Eskaria 3=1+2	2017 o/Pop. 4=3/ Pop.	Batezbestekoa 14-17 o/Pop.	Batezbestekoa 14-17 Eremua-Gip
Ekialdea	378	25	403	15,9	389	28	417	16,5	401	28	429	17,1	407	24	431	17,2	16,7	1,1
Mendebaldea	237	19	256	13,4	244	23	267	14,0	256	20	276	14,6	259	18	277	14,8	14,2	-1,4
Guztira	**615**	**44**	**659**	**14,8**	**633**	**51**	**684**	**15,4**	**657**	**48**	**705**	**16,0**	**666**	**42**	**708**	**16,2**	**15,6**	

5.4.2 Desgaitasuna duten pertsonentzako plazak eskatzen dituen populazioaren proiekzioa

Egoitza zentroak eta laguntzadun etxebizitzak aldi berean kontuan hartuta, egoitza zentroen aldeko joaera nabaria antzeman da. Horrez gain, erabiltzaile populazioaren adinak nabarmen egin du gora: 47,1 urtekoa zen batez besteko adina 2014an, eta 49,4 urtekoa zen 2017 amaieran.

46. taula.- Egoitza zentroetan eta etxebizitzetan altak, bajak eta egonaldiak egin dituzten pertsona desgaituen kopurua eta batez besteko adina

	Pertsona kopurua				Batez besteko adina			
	2014	**2015**	**2016**	**2017**	**2014**	**2015**	**2016**	**2017**
Hasieran	747	756	782	802	47,1	47,4	48,1	48,8
Zentroan sartu	37	57	44	45	39,1	48,0	43,9	45,7
Zentroan jarraitu	719	725	758	778	47,9	48,2	49,1	49,6
Hil	18	18	17	17	55,1	53,8	54,3	58,6
Bestelako bajak	10	14	8	8	53,5	56,0	46,1	53,3
Amaieran	756	782	802	823	47,4	48,1	48,8	49,4

Zifrek argi eta garbi erakutsi dute desgaitasuna duten pertsona asko beren etxean bizitzetik egoitza zerbitzuetan bizitzera pasa direla, beren familia babesak murriztu direlako ziur asko.

Beste alde batetik, erabiltzaileen egoitza zerbitzuetako batez besteko egonaldia areagotu egin da: 13,3 urtekoa zen 2014 hasieran, eta 14,45 urtekoa zen 2017 amaieran. Azkenik, itxarote zerrendan pasatzen den batez besteko denborak gora egin du epe berean, hain zuzen ere 1,16 urtetik 1,55 urtera.

47. taula.- Egoitzetako pertsona erabiltzaileen bilakaera, adin tarteen arabera eta 2021erako proiekzioa

	2013	2014	2015	2016	2017	2021
65 baino gehiago	28	30	27	33	44	68
50 eta 64 artean	292	312	357	379	396	483
18 eta 49 artean	417	402	387	378	374	355
18 urtetik behera	10	12	11	12	9	9
Guztira	**747**	**756**	**782**	**802**	**823**	**915**

Era horretan, egoitza zentroetako eta etxebizitzetako populazioak gora egingo du: 2017an 823 pertsona ziren, eta 2021ean 915 pertsona izango dira; hau da, populazio horrek % 11,2 egingo du gora. Bariazio tasa hori erabiliko da desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideen eskari osoaren 2021era arteko bilakaera kalkulatzeko.

5.4.3. Desgaitasuna duten pertsonentzako defizita zehaztea 2017rako eta 2021erako

5.4.3.1. Egoitza zentroak

Mendekotasunaren arretarako zerbitzuetan bezala, 2021era arte aurreikusitako areagotzea aplikatu zaio 2017ko eskariari, kasu honetan % 11,2. Hala, 507 pertsona eskatzaile hartzen dira oinarritzat, horietatik % 95 hartzen dira kontuan, gainerako % 5 itxarote zerrenda teknikotzat jotzen baita. Emaitza 482 pertsona dira. 2017ko abenduaren 31ko foru plaza kopurua kontuan hartuta, 63 plazako defizita dago.

48. taula.- Egoitza zentroetarako plaza premiak

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera					Proposame	Emaitza del
	Eskaria	Eskari %	Eskaintza	Defizita	+defizita	Eskaria	Eskari %	Eskaintza	Defizita	+defizita		
Eremua	1	2=95%/"1"	3	4=2-3	5=4+	1	2=95%/"1"	3	4=2-3	5=4+	6=5/T4	7=5-6
Gipuzkoatik kanpo	0	0	9	-9				9	-9			
Ekialdea	**292**	**277**	**302**	**-25**		**325**	**309**	**302**	**7**	**7**	**6**	**1**
Mendebaldea	**164**	**156**	**108**	**48**	**48**	182	**173**	**108**	**65**	**65**	**57**	**8**
Guztira	456	433	419	14	48	507	482	419	63	72	63	9

2018ko urriaren 1ean 11 plaza itundu ziren. Horietako 10 sektore jakin batean itundu ziren, bertan aurreikusitako defizita ezabatuz; hala ere, beste alde batetik, lurralde desoreka areagotu egin da. 2021erako aurreikusitako defizita **52** plazakoa izango da beraz.

5.3.2 Etxebizitzak

Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzetan, 2017ko eskaria oinarritzat hartuta, eta % 11,2 aplikatuz, 2021erako proiektatutako plaza kopurua 523 da, eta kopuru horren % 95 497 plaza dira. 2017ko abenduaren 31n 415 plazakoa zen eskaintza. Beraz, 82 plazakoa da defizita, eta defizit hori modu proportzionalean banatzen da eskualde defizitarioetan.

49. taula. Etxebizitzetako plaza premiak

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera					Proposamena	Emaitza defizita
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	Defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	6=5/T4	7=5-6
Bidasoa	25	24	16	8	8	28	26	16	10	10	10	0
Oarsoalde	22	21	8	13		24	23	8	15	15	12	3
Donostia	246	234	266	-32		274	260	266	-6			
Buruntzald	34	32	14	18		38	36	14	22	22	18	4
Debabarrei	6	6	8	-2		7	6	8	-2			
Debagoien	28	27	24	3	3	31	30	24	6	6	6	0
Goierri	33	31	24	7	7	37	35	24	11	11	11	0
Tolosaldea	46	44	39	5	5	51	49	39	10	10	10	0
Urola kost	30	29	16	13	13	33	32	16	16	16	16	0
Guztira	**470**	**447**	**415**	**32**	**35**	**523**	**497**	**415**	**82**	**89**	**83**	**6**

2018ko urriaren 1ean 18 plaza itundu ziren eta 14 ezabatu ziren. Beraz, 4 plazakoa da saldo garbia. 2021erako aurreikusitako defizita **78** plazakoa izango da beraz.

5.4.3.3 Eguneko zentroak

2017ko eskariari % 11,2ko handitzea aplikatzen zaio, eta era horretan, eguneko zentroetako 787 plazako aurreikuspena egiten da 2021. urterako. Horietatik % 95, hau da, 748 plaza hartzen dira erreferentzia gisa eskaria kalkulatzeko. 2017ko abenduaren 31ko 680 plazari kopuru hori kenduta, ondoriozta daiteke **68** plazako defizita dagoela, batez ere mendebaldeko sektorean banatzen dena.

50. taula.- Eguneko zentroetarako plaza premiak

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera					Proposamena	Emaitza defizita
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	Defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	6=5/T4	7=5-6
Ekialdea	431	409	463	-54		479	455	463	-8			
Mendebalc	277	263	217	46	46	308	293	217	76	76	68	8
Guztira	**708**	**673**	**680**	**-7**	**46**	**787**	**748**	**680**	**68**	**76**	**68**	**8**

2018ko urriaren 1ean 26 plaza berri itundu ziren. Beraz, 2021. urterako aurreikusitako defizita **42** plazakoa da.

5.5 5.5 Buruko gaixotasuna duten pertsonak

5.5.1 BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO PLAZEN ESKARIAREN AZTERKETA

Buruko gaixotasuna duten pertsonei arreta emateko baliabideak, hain zuzen ere atal honetan aipatutakoak, baliabide soziosanitarioak dira (etxebizitzak izan ezik), eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinatuta eskaintzen dira.

5.5.1.1 Egoitza zentroak

2014-2017 epean, egoitza zentroetako plazen eskaria 144tik 172ra areagotu zen; hau da, 28 pertsona gehiago zeuden. Horrek esan nahi du 2014an baino % 19 handiagoa dela eskaria. 18 eta 64 urte bitarteko 100.000 biztanleko plaza eskari tasa 32,4 izatetik 93,3 izatera pasa da; eta epe horretako batezbesteko tasa 34,5 izan da.

2014-2017 epean, sektorekako batez besteko banaketa oso orekatua da. Eskualdeka, berriz, alde handiagoak daude, erabiltzaile kopurua apala baita eta itxarote zerrenda baitago.

51. taula. Egoitza zentroetako plazen eskariaren bilakaera, sektoreka

	2014				2015				2016				2017				Batezbestekoa 14-17	
Eremua	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	o/Pop.	Eremua- Gip
Ekialdea	53	31	84	33,2	51	28	79	31,3	63	29	92	36,6	75	25	100	33,9	35,3	0,8
Mendebalc	40	20	60	31,4	42	16	58	30,4	41	22	63	33,4	49	23	72	38,4	33,4	-1,0
Guztira	**93**	**51**	**144**	**32,4**	**93**	**44**	**137**	**30,8**	**104**	**51**	**155**	**35,2**	**124**	**48**	**172**	**39,3**	**34,4**	

5.5.1.2 Etxebizitzak

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako etxebizitza plazen eskaria egoitzetako plazen eskariaren antzekoa da. 2014. urtean eta 2017. urtean, eskaria 111 plazakoa zen.

18 eta 64 urte bitarteko 100.000 biztanle bakoitzeko eskari tasa 24,7 izan zen 2014-2017 epean.

52. taula.- Etxebizitzetako plazen eskariaren bilakaera, eskualdeka

Eremua	2014 Erabiltz aileak 1	2014 Itxarote zerrenda 2	2014 Eskaria 3=1+2	2014 o/Pop. 4=3/ Pop.	2015 Erabiltz aileak 1	2015 Itxarote zerrenda 2	2015 Eskaria 3=1+2	2015 o/Pop. 4=3/ Pop.	2016 Erabiltz aileak 1	2016 Itxarote zerrenda 2	2016 Eskaria 3=1+2	2016 o/Pop. 4=3/ Pop.	2017 Erabiltzaileak 1	2017 Itxarote zerrenda 2	2017 Eskaria 3=1+2	2017 o/Pop. 4=3/ Pop.	Batezbestekoa 14-17 o/Pop.	Batezbestekoa 14-17 Eremua-Gip
Bidasoa	6	0	6	12,3	6	0	6	12,3	7	0	7	14,4	7	0	7	14,4	13,3	11,4
Oarsoaldea	4	2	6	13,6	2	2	4	9,1	4	1	5	11,4	5	0	5	11,4	11,4	-13,3
Donostia	36	6	42	36,1	35	5	40	34,6	31	4	35	30,4	27	3	30	26,2	31,8	7,1
Buruntzaldea	4	1	5	11,3	4	0	4	9,1	7	0	7	16,0	8	1	9	20,5	14,2	-10,5
Debabarrena	7	1	8	23,5	9	1	10	29,6	8	2	10	29,9	8	2	10	30,1	28,3	3,6
Debagoiena	9	0	9	23,2	11	0	11	28,7	11	0	11	29,0	12	0	12	32,0	28,2	3,5
Goierri	16	1	17	39,9	16	0	16	37,9	18	0	18	42,8	19	1	20	48,0	42,2	17,4
Tolosaldea	8	2	10	34,4	8	0	8	27,6	11	0	11	38,1	10	1	11	38,2	34,6	9,8
Urola kosta	6	2	8	17,2	4	2	6	12,9	4	1	5	10,8	6	1	7	15,1	14,0	-10,7
Guztira	**96**	**15**	**111**	**25,0**	**95**	**10**	**105**	**23,8**	**101**	**8**	**109**	**24,8**	**102**	**9**	**111**	**25,3**	**24,7**	

5.5.2 Eguneko zentroak

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zentroen eskatzaile kopurua ia ez da aldatu 2014-2017 epean: 245 eskatzailetik 239 eskatzailekoa izatera pasa da. Beraz, 100.000 biztanleko 55,2 eskatzaile tasatik 54,5 eskatzaile tasara murriztu da.

53. taula.- Eguneko zentroetako plazen eskariaren bilakaera, sektoreka

Eremua	2014 Erabiltz aileak 1	2014 Itxarote zerrenda 2	2014 Eskaria 3=1+2	2014 o/Pop. 4=3/ Pop.	2015 Erabiltz aileak 1	2015 Itxarote zerrenda 2	2015 Eskaria 3=1+2	2015 o/Pop. 4=3/ Pop.	2016 Erabiltz aileak 1	2016 Itxarote zerrenda 2	2016 Eskaria 3=1+2	2016 o/Pop. 4=3/ Pop.	2017 Erabiltzaileak 1	2017 Itxarote zerrenda 2	2017 Eskaria 3=1+2	2017 o/Pop. 4=3/ Pop.	Batezbestekoa 14-17 o/Pop.	Batezbestekoa 14-17 Eremua-Gip
Ekialdea	115	12	127	50,1	112	9	121	48,0	109	13	122	48,6	107	9	116	46,8	48,2	-6,2
Mendebaldea	108	10	118	61,8	105	12	117	61,3	107	11	118	62,6	114	9	123	65,6	62,8	8,4
Guztira	**223**	**22**	**245**	**55,2**	**217**	**21**	**238**	**53,6**	**216**	**24**	**240**	**54,6**	**221**	**18**	**239**	**54,5**	**54,5**	

5.5.3. BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONEN POPULAZIO ESKATZAILEAREN PROIEKZIOA

Departamentuko arreta zerbitzuek plazen premiari buruz emandako aurreikuspenaren arabera, 2018-2021 epean 94 plaza beharko dira egoitza zentroetan, 53 plaza etxebizitzetan eta 45 plaza eguneko zentroetan.

5.5.4. BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO PLAZAK AREAGOTZEA 2017AN ETA 2021EAN, ETA HORIEN BANAKETA EREMUKA

5.5.4.1 Egoitza zentroak

94 plaza irekitzeak esan nahi du eskaintza % 33 areagotzen dela. Plaza horiek proposatutako lurralde egituraren arabera antolatzean, lurralde desoreka ia erabat murrizten da.

54. taula.- Egoitza zentroetarako plaza premiak

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera					Proposamena	Emaitza defizita
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	6=5/T4	7=5-6
Ekialdea	100	95	75	20	20	133	127	75	52	52	52	0
Mendebaldea	72	68	49	19	19	96	91	49	42	42	42	0
Guztira	**172**	**163**	**124**	**39**	**39**	**230**	**218**	**124**	**94**	**94**	**94**	**0**

5.5.4.2 Etxebizitzak

Etxebizitzetako 53 plaza irekitzeak esan nahi du eskaintza % 50 areagotzen dela. Plaza horiek proposatutako lurralde egituraren arabera antolatzean, lurralde desoreka nabarmen murrizten da.

2018ko urriaren 1ean 10 plaza berri itundu dira. Beraz, 2021. urterako aurreikusitako defizita **43** plazakoa da. Plaza horietatik 4 Buruntzaldean itundu dira, defizit gehien duen eskualdeetako batean.

55. taula. Etxebizitzetako plazen premia

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera				
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=95%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+
Bidasoa	7	7	20	-13		10	10	20	-10	
Oarsoaldea	5	5	4	1	1	7	7	4	3	2
Donostia	30	29	45	-17		45	43	45	-2	
Buruntzaldea	9	9	0	9	9	13	13	0	13	13
Debabarrena	10	10	11	-2		15	14	11	3	3
Debagoiena	12	11	0	11	11	18	17	0	17	17
Goierri	20	19	17	2	2	30	28	17	11	11
Tolosaldea	11	10	8	2	2	16	16	8	8	8
Urola kosta	7	7	0	7	7	10	10	0	10	10
Guztira	**111**	**105**	**105**	**0**	**32**	**166**	**158**	**105**	**53**	**64**

5.5.4.3 Eguneko zentroak

Departamentuko arreta zerbitzuek plazen premiari buruz emandako aurreikuspenaren arabera, 2018-2021 epean 45 plaza beharko dira eguneko zentroetan. Plaza berriak sektoreka banatzeko orduan, hiru plaza esleitu dira Ekialdeko sektorean eta 42 plaza Mendebaldekoan.

56. taula.- Eguneko zentroetarako plaza premiak

	Egungo egoera 2017an					2021erako aurreikusitako egoera				
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+
Ekialdea	116	110	132	-22		143	135	132	3	3
Mendebaldea	123	117	102	15	15	151	144	102	42	42
Guztira	**239**	**227**	**234**	**-7**	**15**	**294**	**279**	**234**	**45**	**45**

5.6 Zentro okupazionalak

5.6.1 Zentro okupazionaletako plazen eskariaren azterketa

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen 2015-2017 Maparen ebaluazioan aipatu zen moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetza hitzarmen bat dauka sinatuta Gureak entitatearekin, hain zuzen ere Gipuzkoako zentro okupazionalak kudeatzeko. Hitzarmen horren arabera, entitateak konpromisoa hartzen du plaza okupazionalak eskaintzeko bi modalitatetan: lantegi okupazionaletan eta prestakuntza kontratuetan. Jarraian ageri dira zehaztuta 2014-2017 epean eskainitako plaza kopurua.

57. taula. Diruz lagundutako gutxieneko eta gehienezko plaza okupazionalen kopurua, Gureak entitatearekin sinatutako hitzarmenaren arabera

	2014	**2015**	**2016**	**2017**	**Aldea: 17-1**
Lanean trebatzeko lantegiak					
Gutxienez	770	800	810	810	40
Gehienez	850	880	890	890	40
Prestakuntza kontratuak					
Gutxienez	120	120	120	120	0
Gehienez	160	160	160	160	0
Plaza okupazionalak, guztira					
Gutxienez	890	920	930	930	40
Gehienez	1.010	1.040	1.050	1.050	40

Zentro okupazionalei buruzko aurreikuspenei dagokienez, lehenik eta behin, azpimarratu behar da hitzartutako plaza kopurua oro har areagotuko dela. Bigarren, defizita erreferentzia gisa hartu ordez, eremuen arteko estaldura desoreken arabera banatuko da areagotze hori, hain

zuzen ere eskariaren eta eskaintzaren arteko ehunekoaren alde gisa, gainerako zerbitzuetan egin den moduan.

58. taula. Zentro okupazionaletako plazen eskariaren bilakaera, eremuka eta erabiltzailearen egoitza lekuaren arabera.

	2014				2015				2016				2017				Batezbestekoa 14-17	
Eremua	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	Erabiltzaileak 1	Itxarote zerrenda 2	Eskaria 3=1+2	o/Pop. 4=3/ Pop.	o/Pop.	Eremua-Gip
Bidasoa	74	0	74	15,1	84	0	84	17,2	91	0	91	18,8	87	0	87	17,9	17,3	-5,7
Oarsoaldea	97	0	97	22,0	99	0	99	22,5	102	0	102	23,2	109	0	109	24,9	23,2	0,3
Donostia	254	0	254	21,8	266	0	266	23,0	266	0	266	23,1	260	0	260	22,7	22,7	-0,2
Buruntzaldea	102	0	102	23,1	103	0	103	23,5	106	0	106	24,2	103	0	103	23,5	23,6	0,7
Urola kostaldea	60	0	60	22,1	57	0	57	21,0	59	0	59	21,7	61	0	61	22,4	21,8	-1,2
Iraurgi	45	0	45	23,4	41	0	41	21,4	36	0	36	18,8	38	0	38	20,0	20,9	-2,0
Deba kosta	29	0	29	19,4	31	0	31	20,8	33	0	33	22,3	30	0	30	20,4	20,8	-2,2
Deba erdia	54	0	54	28,3	64	0	64	34,0	65	0	65	34,9	62	0	62	33,5	32,7	9,8
Debagoiena	103	0	103	27,2	106	0	106	28,4	114	0	114	29,8	117	0	117	30,5	28,9	6,0
Urola Garaia	45	0	45	28,6	43	0	43	27,7	33	0	33	21,4	32	0	32	21,0	24,7	1,8
Oria garaia	45	0	45	16,8	47	0	47	17,6	51	0	51	19,2	53	0	53	20,1	18,4	-4,5
Tolosaldea	68	0	68	23,4	71	0	71	24,5	74	0	74	25,6	72	0	73	25,3	24,7	1,8
Guztira	**976**	**0**	**976**	**22,0**	**1.012**	**0**	**1.012**	**22,9**	**1.030**	**0**	**1.030**	**23,4**	**1024**	**0**	**1.025**	**23,4**	**22,9**	

2014-2017 epean, erabiltzaile kopurua 976 izatetik 1.025 izatera pasa zen; hau da, epe horretan 49 erabiltzaile gehiago egon dira, eta bariazio tasa % 5,0 izan da. 18 eta 64 urte bitarteko 10.000 pertsonako erabiltzaile tasari dagokionez, 22tik 23,4ra igo da.

Pertsona erabiltzaileen eremukako banaketa nahiko orekatua da. Hala ere, pertsona erabiltzaile tasa handiagoak daude Deban Kostan, Deba Erdian, eta Debagoienan.

5.6.2 ZENTRO OKUPAZIONALETAKO PLAZAK AREAGOTZEA ETA HORIEN BANAKETA ZEHAZTEA

Aurreikuspenen arabera, 2018-2021 eperako **40** plaza itundu gehiago egongo dira. Aurreko zerbitzuetan erabilitako txantiloi bera aplikatuz (40 plaza horiek banatzeko soilik), zifra hauek lortzen dira eremuka.

59. taula. Zentro okupazionaletako plazen aurreikuspena, eremuka

	Egungo egoera 2017an						2021erako aurreikusitako egoera				
Eremua	Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+		Eskaria 1	Eskari % 2=%/"1"	Eskaintza 3	Defizita 4=2-3	+defizita 5=4+
Bidasoa	87	87	87	0			97	97	87	10	10
Oarsoaldea	109	109	96	13	13		122	122	96	26	26
Donostia	260	260	402	-142			291	291	402	-111	
Buruntzaldea	103	103	68	35	35		115	115	68	47	47
Urola kostaldea	61	61	51	10	10		68	68	51	17	17
Iraurgi	38	38	37	1	1		42	42	37	5	5
Deba kosta	30	30	0	30	30		34	34	0	34	34
Deba erdia	62	62	89	-27			69	69	89	-20	
Debagoiena	117	117	120	-3	20	0	131	131	120	11	30
Urola Garaia	32	32	35	-3			36	36	35	1	1
Oria garaia	53	53	53	0			59	59	53	6	6
Tolosaldea	73	73	68	5	5		82	82	68	14	14
Guztira	**1.025**	**1.025**	**1.106**	**-81**	**114**		**1.146**	**1.146**	**1.106**	**40**	**190**

5.7 Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak

Bazterketa egoeran dauden pertsonentzako plaza kopurua zehazteko orduan, Departamentuko arreta zerbitzuek emandako datuak hartu dira oinarritzat. Arreta zentroetan helbideratutako atzerritar kopuru handiaren ondorioz, eskariaren benetako lurralde banaketa islatzen ez denez, banaketa hori egiteko 18 eta 64 urte bitarteko biztanleen erreferentzia populazioko datuak hartu dira erreferentzia gisa.

5.7.1 BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO PLAZEN ESKARIAREN AZTERKETA

5.7.1.1 Egoitza zentroak

